




Laburpena

Erbestearen egia

**KOLONBIATIK
KANPOKO
KOLONBIA**

Egia Argitzeko, Bizikidetzarako
eta Errepikapenik Ez Izateko Batzordea

ETORKIZUNA DAGO EGIA BADAGO – AMAIERAKO TXOSTENA



Laburpena

Erbestearen egia

KOLONBIATIK KANPOKO KOLONBIA

Egia Argitzeko, Bizikidetzarako
eta Errepikapenik Ez Izateko Batzordea

ETORKIZUNA DAGO EGIA BADAGO – AMAIERAKO TXOSTENA

Argitalpen hau Eusko Jaurlaritzako Biktimen, Giza Eskubideen eta Aniztasunaren Zuzendaritzak Hegoa Elkartearentzat emandako dirulaguntzaren esparruan egin da: *Europar Kolonbiako Egia Argitzeko, Bizikidetzarako eta Errepikapenik Ez Izateko Batzordearen gomendioen jarraipena egiteko nazioarteko artikulazioa.*



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLITICAS SOCIALES

Dokumentu honen edukiak egilearen erantzukizun eskusiboa dira, eta inola ere ezin dira hartu argitalpena babestu duten erakundeen iritzizat.



www.hegoa.ehu.eus / hegoa@ehu.eus

UPV/EHU
Zubiria Etxea eraikina
Agirre Lehendakariaren Etorbidea 81
48015 **Bilbo**
Tel.: 94 601 70 91

UPV/EHU
Carlos Santamaria zentroa
Elhuyar Plaza, 2.
20018 **Donostia-San Sebastián**
Tel.: 943 01 74 64

UPV/EHU
Campuseko Liburutegia
Nieves Cano, 33
01006 **Vitoria-Gasteiz**
Tel.: 945 01 42 87

2023
Diseinua eta Maketazioa: Marra
Itzulpena: Labayru Fundazioa
Inprimategia: Printheus S.L.



Dokumentu hau Creative Commons-en lizentzia baten pean dago. Zilegi da lan hau askatasunez kopiatu, banatu eta publikoki komunikatzea, baldin eta tutoretza onartzen bada eta helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada. Ezin da aldatu, eraldatu edo lan honetatik eratorritako lan bat sortu. Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

Sarrera gisa

Kolonbiatik kanpoko Kolonbia

Etxea eta aberria galtzea, bizitzako inguruabarrek hala behartua, norbanakoak aukeratua edo bi faktoreen konbinazioaren ondoriozkoa, parerik gabeko haustura da, bizitza modu ezin erreparatuzkoan aldatzen duena eta erbesteratuak bere buruaz, bere munduaz eta bere garaiaz duen ikuspegia erabat aldatzen duena.

Hernando Valencia Villa, Giza Eskubideen prokuradore ohia, PGN, erbesteratua¹

Erbestearen kontakizun honen testigantza giza eskubideen prokuradore ohi batena da; desagertze behartuko kasu baten erantzukizunak ikertzen zituen, eta errealitate ikusezin, traumatiko eta argigarria erakusten du. Ikusezina da Kolonbian ez dagoelako Kolonbiatik kanpoko Kolonbia honen esperientziak biltzen dituen ezagutzarik ez instituzioetan, ez memoria kolektiboan; traumatikoa da loturen eta bizitza-proiektuaren urratze sakona dakarrelako, oraindik aitortu beharrekoa den giza eskubideen urraketa. Eta adierazgarria da agerian uzten duelako bai herrialdearen eta gizarteko erakundearen babesgabetasuna eta ahanztura, baita Batzordeak jasotako testigantzetan gizateriaren berreraikuntzarako eta lezioetarako dagoen gaitasun handia.

Erbesteari hitza ematea bide bat irekitzeko modu bat da, esperientzia hori aitortua izan dadin, eta haren protagonisten ahotsa entzuna eta aintzat hartua. Erbesteke dokumentazioari dagokionez, egiaren batzordeek oso lan mugatua egin dute munduan. Kolonbiako Egiaren Batzordeak –FARC-EP-ekin Bake Akordioa sinatu ondoren sortu zen, 2016an– entzute, dokumentazio eta aitortza prozesu bat egin du –24 herrialdetako erakunde eta biktima askoren konfiantzarekin ehundua–. Prozesu horrek egia argitu eta eraikitzearen parte izan nahi duen Kolonbiako biztanleria baten egoera erakusten du, eta biztanleria horren esperientziak memoria kolektiboaren parte dira.

Kontua ez da soilik erbesteari eta babesari buruzko funtsezko galderei erantzutea –ikusezinak izan baitira–, eta beren bizitzak defendatzeko herrialdetik atera behar izan zuten pertsonen zer gertatu zitzaizen konturatzeari; baita Kolonbiak mugetatik kanpo bizi diren egia horiei buruz gaur egun duen erronkari erantzutea ere: Kolonbiako gizartea eta Estatua gai izango ote dira historia honetan ere beren buruari begiratu eta historia hori aitortzeko? Era berean, gogoetarako gaitzat hartu nahi da erbatea ez zela alferrikakoa izan: biziak, familiak, egiak salbatu zituen.

1 001-VI-00029 elkarrizketa. Prokuradore delegatu ohia, Europan 1994an erbesteratua.

Populazio ikusezin bat

Biktimen Unitatearen estatistika ofizialen arabera², 1985etik 2021era bitartean soilik, beste eperik kontuan hartu gabe, barneko gatazka armatuaren bederatzi milioi biktima baino gehiago izan ziren; hala ere, gerraren ondorioz herrialdetik ihes egin behar izan zuten gehienak ez daude kopuru horretan sartuta. Erbestea ikusezina da, ez bakarrik bere azpierreregistro altuagatik, baita egiturazko arrazoiengatik ere, hala nola gertaera horiek giza eskubideen urraketa direla ez aitortzeagatik; hori dela eta, biktima gehienek arretoa, babes eta akonpainamendu eza jasan zuten, naziotik atera aurretik, nazioarteko babesa bilatzeko. Nahiz eta kasu askotan pertsonak bizi izandakoari buruzko salaketak egin zituzten, horiek ez zuten babes handiagorik ekarri; aitzitik, kasu batzuetan segurtasun falta areagotu egin zen. Estigmatizazioa ikusezintasun horren parte da, baita kasu horiei dagokien zigorgabetasunaren parte ere, biktima gehienek babesa ematen eta justizia administratzen duten erakundeetan jaso zuten mesfidantzagatik.

Gauza bat argi dago: Batzordeak beste herrialde batzuetan elkarrizketatutako pertsonetako batek ere ez zuen ihes egin nahi izan zuelako. Erbestea izan zen, ia beti, jasandako beste indarkeria-gertaera batzuen ondorengo azken baliabidea, hala nola barne-lekualdatze behartuak, mehatxuak, hurkoen galera edo bizitzaren aurkako atentatuak. Erbestea, berez, bortxaketa bat da, eta agerian uzten du Estatu erakundeek porrot egin dutela biktimak babesteko eginbeharrean, bai eta bortxaketa horietan armatutako eragile guztien erantzukizuna ere, pertsona erbesteratuen bizitzak bi zatitan bereizten baitituzte.

Herrialdetik atera ondoren, nahiz eta askok lasaitu egin ziren beren segurtasun-baldintzak hobetu zirelako edo arriskua atzean utzi ahal izan zutelako, ezin izan zuten saihestu beren bizitzetan etxea eta familia uzteak eragindako urradura sakona; lana eta estatusa galtzea; ihes egitea, askotan jantzitako arropa edo gauza gutxi batzuekin bakarrik; bide zail eta arriskutsuak zeharkatzea; jazarleek haiek aurkitzeko arriskua; agiriak eskuratzea edo agiririk gabe ateratzea; euskarriak bilatu edo aktibatzea, leku batera iristeko edo kale batean lo egiteko; muga bat zeharkatzea, beste aldean zer izango den jakin gabe; herrialde batera iritsi eta dena berriz hastea, batzuetan zatietatik edo, askotan biktimek esan ziguten bezala, «errautsetatik». Erbesteratuak bere nortasuna galtzen du, lurralde batean *garelako*, komunitate batean, familia batean, eta dena bere horretan utzi behar denean berriz hasi beharra dagoelako. Erbesteak duintasunari buruz hitz egiten digu, Estatu jakin bateko herritartasunean ez ezik, gizaki gisa izateko aukera errealean ere oinarritzen den aitortzaren beharraz.

Erbesteratu diren pertsonen ahotsean eta esperientzian, erbestea desterrua da, bere ibilgu naturaletik ateratako bizitza, eta “heriotza txiki bat hainbeste besterentzeren erdian”. Haien iragaitean, prekaritatea eta beldurra, banantzea, bakardadea eta etxera itzultzeko ahalegina dira nagusi, nahiz eta mentalki bada ere, pertsona ezagunen, haien senideen eta lagunen ondoan. Porturatze horietan sentitzen den segurtasunik ezak antsietatea areagotzen du; izan ere, erbesteratutakoen bizitza beste batzuen esku geratzen da –migrazio-agintarien esku, adibidez–. Horiek baietza edo ezetza eman dezakete, eta horren mende dago, halaber, zein tokitara eramaten diren, edo zer laguntza edo babes jasotzen duten.

Horrez gain, erbesteratu behar izan zuten gehienek errua sentitzen dute bizirik atera direlako edo ihes egin ahal izan dutelako, Kolonbian aldiz “urrezko erbesteak” izendapenarekin ezagutzen diren horren irudi distortsionatuak daude (uste izanik ateratzea egoera hobea aurkitzea edo bizitza ona ziurtatzea

2 Biktimentzako Unitatea. Biktimen Erregistro Bakarra (RUV, gaztelaniaz), «Lurralde-zuzendaritzaren araberako kontsulta».

izan zela, baina errealitatea da biktimek afektuak, estatusa, propietateak eta loturak galdu zituztela, eta beren bizitza-proiektuak ezerezetik berreraiki behar izan zituztela).

Hizkuntza eta esperientzia

Biktimei eta bizirik atera direnei buruzko gogoetak bitartekari gisa erabiltzen dira, normalean termino desberdinekin, hala nola «asiloa edo babesaren eskatzen duten pertsonak», «nazioarteko babesaren behar dutenak», «erbestera», «kanpoko biktimek» edo «mugaz gaindiko lekualdatuak». Izendapen horiek guztiak aipatu dituzte bai biktimek bai babesaren mundu instituzionalak, bai Estatuak eta gobernu kanpoko erakundeetako funtzionarioek, bai Egiaren Batzordeak Kolonbiatik kanpo herrialde hartzailerekin integrazeko entzun dituen nazioarteko agentziek eta laguntza-erakundeek.

«Errefuxiatutzat» hartzen da «arraza, erlijio, nazionalitate, gizarte-talde jakin bateko kide edo iritzi politiko jakin bateko kide izateagatik jazartzeko beldur funtsatuak direla eta, bere nazionalitateko herrialdeetatik kanpo dagoena eta, beldur horiek direla eta, bere herrialdean babestu ezin duena edo nahi ez duena; edo, nazionalitateirik izan gabe eta gertaera horien ondorioz, ohiko bizilekua duen herrialdeetatik kanpo egonda, bere ohiko bizilekura itzuli ezin dena edo, horien ondorioz, itzuli nahi ez duena»³.

Genevan, Suitzan, 1950ean onartutako definizio horretaz gain, estatuek, bereziki Latinoamerikako eskualdekoek, barne araudian sartu dute aterpearen definizio zabaldua, 1984ko Cartagenako Adierazpenean ezarria; adierazpen horrek aintzat hartzen ditu honako hauek ere: «beren herrialdeetatik ihes egin duten pertsonak, baldin eta beren bizitza, segurtasuna edo askatasuna mehatxupean egon badira indarkeria orokortuaren, atzerriko erasoaren, barne-gatazken, giza eskubideen bortxaketa masiboaren edo ordena publikoa modu larrian asaldatu duten beste inguruabar batzuen ondorioz»⁴.

Definizio zabalago horrek agerian utzi zituen gatazka armatuaren ondorioz eskualdean giza eskubideen urraketa larri eta orokortuak, sistema antidemokratikoak ezartzea eta indarrean egotea, eta jendea baztertzeko, bortxatzeko eta lekualdatze behartuko politiken jazarpena eta eragina –barne-gatazka armatuaren ondorioz Kolonbian bizi zena, esaterako–; eta azken hamarkadetan gerra larriagotzearekin batera, funtsezkoa izan da erbestera utzitako pertsonen eskualdean eta munduan bizi duten egoera ulertzeko.

Ondorioz, Genevako Estaturua eta Cartagenako Deklarazioa pertsona askori hainbat hamarkadatan helmugako herrialdean geratzeko asiloa eskatzeko aukera eman dieten nazioarteko mekanismoak dira. Eskara horien erantzunak, neurri handi batean, Kolonbiako une historikoaren edo harrera-herrialdearen arabera izan dira. Beste pertsona batzuek, aldiz, anonimatuak babesteko grinak, ez zuten inoiz nazioarteko babesaren eskatu. Gerraren ondorioz herrialdeetatik irten behar izan zuten kolonbiar gehienak, nazioarteko babesaren behar leku ezberdinetan izan arren, beste estatus batekin geratu ziren

3 Genevan, Suitzan, 1951ko uztailaren 28an, Iheslarien eta Aberrigabeen Estatuari buruzko Osoko Bilkuren Biltzarrak (Nazio Batuak) onartua, Batzar Nagusiak 1950eko abenduaren 14ko 429 (V) ebazpenean deitua. Ikusi <https://www.acnur.org/5b0766944.pdf>.

4 «Erdialdeko Amerikako, Mexikoko eta Panamako Errefuxiatuen Nazioarteko Babesari buruzko Solasaldia: Arazo Juridikoak eta Humanitarioak» izenekoan onartua, Cartagenan, Kolonbian, 1984ko azaroaren 19tik 22ra. Ikusi <https://www.acnur.org/5b0766ef14.pdf>.

lekuetan, hala nola herrialde berrian egoteko, lana bilatzeko eta bizitza berregiten saiatzeko aukera eman zieten bisa humanitarioa edo bestelakoak.

Hala ere, pertsona asko ez dira kategoriatan sartzen, ez baitzuten inoiz babes-eskaerarik egin; besterik gabe, migratzaile, ikasle edo etorkizuneko aukera berriak bilatzen zituzten langile gisa geratzen saiatu ziren. Desberdintasun horiek guztiek erakusten dute Kolonbiatik atera behar izan zuten biktimek beste herrialde batzuetan bizi dituzten egoerak askotarikoak direla. Horiei guztiei buruz hitz egiten du txosten honek, adierazitako desberdintasunekin –aurrerago ikusiko direnak–. Artista batek Brasilerara bere familiarekin atera behar izan zuen 2015ean, Bogotako auzo batean kultura-prestakuntzako prozesu komunitario baten parte izateagatik talde armatuek egin zizkioten mehatxuen ondorioz; eta egoera sorta handi horren berri ematen du: «Guk, hain zuzen, hemen [Rio de Janeiro] ezagutu genuen aterpetxea, eta jakin genuen gertatu zitzaiguna babes emateko arrazoiak zela, hainbat urte igaro ondoren»⁵.

Beste kasu batzuetan, fenomeno hori deskribatzeko, Kolonbian «mugaz gaindiko lekualdatze behartuaz» hitz egin izan da. Kontzeptu hori –nazioarteko zuzenbideari ez dagokion arren eta Kolonbiako legedian ez den onartzen; bai, ordea, barneko lekualdatze behartua– talde edo komunitate osoak muga zeharkatu eta ondoko herrialde batera babesleku bila eramanez dituzten lekualdatze kolektiboen egoera izendatzeko erabiltzen da. Batzuetan, egoera horiek aldi baterako egonaldiak dira –asteak edo hilabeteak, beste aldean egonda egoera ebaluatzen edo baretzen den bitartean–; beste batzuetan, iraunkor bihurtzen dira, ez dagoelako itzultzeko baldintzarik. Liburuki honetan, bereziki mugako eremuetan bizi diren eta gatazka armatuaren garai ezberdinetan lekualdatze hori bizi izan duten komunitate eta herrien exodo handiak azaltzeko edo deskribatzeko erabiliko dugu terminoa. Kasu batzuk honako hauek dira: bari herria eta Santanderko iparraldeko La Gabarrako –Venezuelarekiko mugan– nekazari-komunitateak, 1999an sarraldi paramilitarraren ondoren; edo herritar afro-ondorengoek eta indigenek Panamara egindako ihesa, 1997an, armadak egindako Génesis operazioan; edo ehunka awa indigenaren exodoa Ekuadorrerantz 2009an, FARC-EP-en erantzukizun izan ziren sarraskien eta gerrilla horrek indar publikoarekin izandako liskarren ondoriozko lekualdatzeengatik.

Kolonbian, biktimen legeak «kanpoko biktimak» aipatzen ditu. Hala ere, kategoriatan horiek –biktima izatea eta beste herrialde batean egotea– ez dira bata bestetik bereizitako esperientziak. Alegia, ez dira Kolonbiatik «kanpo» dauden biktimak, baizik eta Kolonbiatik «atera behar izan zutenak», jazarpen edo mehatxuengatik, Kanadan erbesteratutako emakumezko lider indigena hark adierazi zuen moduan:

«Nire bigarren bahiketan, mehatxuen, apartamentuetako sarraldien eta giza eta gizarte-eskubideen arloko beste erakunde batzuetako liderrei buruzko galderen ondoren, laguna eta biok Fiskaltzara joaten ginen behin eta berriro kasua kontatzera; baina salaketa eta salaketa artean nekatu egin ginen. Noiz galtzen du norberak gizaki izateko eskubidea? Ni ez nintzen atera herrialdea maitatuz. Estatuak traizio egin zidala sentitzen nuen»⁶.

Hala ere, oso herrialde desberdinetan dauden beste pertsona batzuk ere atera ziren Kolonbiatik, bizi-aukera hobek izateko: Kolonbiako diaspora deitzen zaio horri –termino zabalagoetan–: beste herrialde batzuetan dagoen kolonbiar biztanleria, migrazioaren arrazoiak edozein direla ere. Hau da, diasporan

5 121-VI-00004 elkarrizketa. Artista bikotea, mehatxatuak eta Brasilen erbesteratuak 2015ean.

6 127-VI-00012 elkarrizketa. Buruzagi arhuaca, giza eskubideen defendatzailea, Kanadan erbesteratua.

sartzen dira, baita ere, lan egiteko edo ikasteko atera zirenak, bizi-aukera hobeen bila. Herrialdetik kanpo dauden kolonbiar horiek ere parte hartu zuten Batzordean eta, gatazkaren biktima izan ez arren, konpromiso kolektiboa erakutsi zuten giza eskubideak defendatzeko eta gizarte-ehuna berreraikitzeke edo bake-prozesuari laguntzeko.

Erbestearen esperientziara hurbiltzen saiatzen garen termino horiez gain, garrantzitsua da biktimen autoaitortza-moduak ere ulertzea; izan ere, bizi izandako gertaerez gain, identitateek eta alderdi subjektiboek ere eragiten dute. Batzuk erbesteratuak direla aldarrikatzen dute, eta beste batzuk, berriz, ikusgarritasun horren beldur dira, haientzat eta haien familientzat arriskutsua izan daitekeelako. Beren esperientziak erbestearekin identifikatzen ez dituztenak ere badaude. Desberdintasun horietatik harago, Egiaren Batzordearentzat garrantzizkoena ez dira erreferentzia-kategoriak, biktimen esperientziak baizik. Kontuan hartu gabe nola onartzen den pertsona edo beste herrialde batean duen estatusa –estatuko eta nazioarteko araudien arabera–, erbestea edo desterrua sufrimendu kolektiboaren eta giza eskubideen urratzearen adierazle da, eta hori kontuan hartu behar da esperientziak dakarren sakontasun osoan. Estatutik atera zirenen profilak kontuan hartu gabe (giza eskubideen defendatzaileak, militante politikoak, komunitateko buruzagiak, nekazariak, finken jabeak, militarrek, enpresaburuak, kazetariak, funtzionario publikoak, borrokalari ohiak, erlijiosoak, artistak, besteak beste), ahots guztiak jaso eta entzun dira Batzordearen lanean.

Batzordearen iritziz, erbestea barne-gatazka armatuaren ondorioz herrialdetik atera behar izan dutenen irteera eta bereizketa behartuari dagokio. «Erbeste» terminoa erabiltzen da arrazoi politikoak eta gatazka armatuko gertaeren eta nazioarteko babes bilatzearen arteko lotura adierazteko.

Ikusezintasuna azpimarratzen dugu, eta erbestea, aldi berean, herrialdeko lurraldearen eta denboraren bazterketa dela. Lan honen ekarpen nagusia atera behar izan zuten pertsonen ahotsak eta esperientziak, oro har eskuarki beren familia, lagun, komunitate eta prozesuentzat baino balio izaten ez dutenak, itzularaztea eta zabaltzea da. Testigantza horiek bide baten hasiera dira; bizikidetzaren berrezartzeko lehen urratsa pertsona, familia eta komunitate horien esperientzia kontuan hartzea da; Kolonbiatik kanpoko Kolonbia honetako egia asko ehunka mila etxe kolonbiarretan daude munduan.

Irtenbide behartuaren gertakarien arteko lotura lausotzen denean, desitxuratu egiten dira, halaber, bizi izandako arriskua, nazioarteko babes behar izatea, baita gizarte- eta/edo politika-agentziaren gaitasun hori eta Kolonbiako erbesteratutako pertsona askoren eskubideen defentsa ere. Espainian errefuxiatuta dagoen emakume afro-ondorengo honen testigantzak erakusten du zer lotura dagoen erbestera eraman zuten arrazoi onarpenaren eta bizi izandakoa salatzeke eta bizitza berreraikitzeke jarrera aktiboaren artean:

«Bizi izan nintzen behintzat. Berrero jaio nintzen, egoera berrero aurkitu eta aurre egin nionetik. Jaio nintzen, esan nuelako: “Neure burua hiltzen uzten badut, inork ez du jakingo ni zer egoeratan nengoan, eta, bizi banaiz, salatuko dut eta esango dut zergatik nengoan, ez baita bidezkoa emakumeek migratu behar izatea herrialdeetan bizi den egoera sozial eta politiko bateko desafinatze batengatik”⁷.

7 101-VI-00001. Emakume sindikalista, jazarpenen eta mehatxuen biktima. Espainian erbesteratua 2007an.

Erbesteak ahots eta aurpegi guztiak ditu

Hainbat pertsonak eta erakundek bizi izan dute: nekazariak, indigenak, afro-kolonbiarrek, gatazkaren lurraldea gerran laguntzeko betebeharra ezarri nahi dietenen arteko gatazka eta borroka armatuetatik defendatzen dutenek... Erbesteak, horrenbestez, Kolonbiako ahots eta aurpegi guztiak ditu. Barne hartzen du biktimen prozesua eramaten zuen abokatua; sarraskiak publikoki salatzen zituen kazetaria; gertaera horien autore intelektualak ikertzen zituen fiskala; gobernuaren aurka aritzeagatik kanporatutako militante politikoa; giza eskubideen aurkako bortxaketa larriez arduratzen zen epailea; bere familiari estortsioa egiteko bahitutako enpresaburua edo merkataria, desmobilizatutako borrokalari edo sinatzaile ohia, gero errepresalia gisa jazarria; emakumeak antolatuz beren komunitaterako aldaketa sustatzen zuten buruzagiak; Bogotako edo Medellingo auzo batean zegoen mutil trans aktibista; zentsura edo jazarpena jasan zuten artista plastikoa eta dantzaria; bere seme-alabekin ihes egin zuen ama, haiek derrigorrezko errekrutatzetik babesteko; gerrillak edo betearazpen estrajudizialen kasuak salatzeagatik jazarritako indar publikoko kidea; desagertuak bilatzen zituzten edo justizia, edo beren lurrak eta aurreko guztien senideak itzultzea, eskatzen zuten gatazkaren biktimak; eta aurreko guztien familietako kideak.

María Tila Uribek 1970eko hamarkadaren amaieran herrialdetik irten behar izan zuen, herri-hezkuntzaren aldeko aktibismoagatik, eta Egiaren Batzordeak erbestearen aitortzarako 2020ko azaroan egin zuen ekitaldi batean –Egiaren aldeko VII. Topaketa, “Gure ahotsen itzulera”–, eremu horren garrantzia azpimarratu zuen:

«Indarkeriarekin, lidergoak, familiak eta ametsak hautsi ziren. Familiak puskatuta eta zaurituta geratu ziren, eta milaka kolonbiarren talentua baztertu egin zen. Erbestearen baliozkotasuna aitortzea funtsezkoa da; izan ere, existitu zela eta haren arrazoiak zein izan ziren ahaztuz gero, ezkututzea geratzen da, edo are okerragoa, memoria manipulatu; eta dagoeneko badakigu distortsio historikoek arreta desbideratzen dutela. Horregatik, memoria historikoa berreskuratzeak estatuen erantzukizuna izan behar du, beren egintzengaitik eta gainerako eragile arduradunen ekintzengaitik erantzuteko. Gizartearen konpromisoa ere izan behar du, halaber, bizikidetzaren bermea, ez errepikatzea bermatzea. Aukeratu nuen bidea garai hartan familia gisa bizitzea egokitu zitzaigun testuinguruaren ondorioa izan zen, gure pentsamendu politikoa beti egon baita setio-egoeren, zibilentzako murrizketa martzialen, segurtasun-estatutuen eta errepresio-egoeren aurka, zuzenbidezko Estatu sozialaren aurkakoa den ororen aurka»⁸.

Nahiz eta hainbat eragile, estatukoak zein gerrillariak eta paramilitarrak, giza eskubideen aurkako mehatxuen, atentatuen eta bortxaketen erantzule izan ziren, eta, ondorioz, ehunka mila biktima herrialdetik irtetera eraman zituzten –intentsitate handiko uneak izan zituen barne-gerraren dinamika kontuan hartuta–, Estatuak, gainera, erbestearen aurrean erantzukizuna du, biztanleak babesteko eta hemen aipatzen diren gertakari gehienak ikertzeko duen betebeharra ez betetzeagatik. Testigantza batzuek agerian utzi zuten zenbait funtzionariok ere gomendatu zitelako biktimei herrialdetik ateratzeko, haien segurtasuna bermatzeko ezintasuna aipatuz: «2019an Fiskaltzara itzuli nintzenean ELN-k berriro mehatxatu ninduela salatzeraz, funtzionario batek esan zidan, bizi nahi banuen eta alde egiteko aukera

8 María Tila Uriberen testigantza, “Gure ahotsen itzulera” Egiaren aldeko Zazpigarren Topaketaren esparruan, eta Segurtasun Nazionaleko Estatutuaren garaian kolonbiarrak atera zirela gogoratzea, lan pedagogikoaren bidez pentsamendu kritikoa eratzetik. María Tila eta haren familia erbesteratu goiztiarrak izan ziren, 70eko hamarkadaren amaieran, herri-hezkuntzaren aldeko aktibismoagatik.

izanez gero, hobe nuela herrialdetik alde egitea»⁹. Elkarrizketatutako biktima ia-ia guztientzat erbestea izan zen azken aukera. Kasu askotan, Estatuarekiko konfiantza izan zen gertaerak salatzen eraman zuena, eta jendea herrialdea uztera behartuta egotera behartu zuena, geroago gehitu ziren mehatxuen ondorioz. Batzordeak bere lanean egiazatu du hautsitako konfiantza hori berreraiki behar dela.

Nolanahi ere, zenbait herrialdek erbesteratuekiko eta babes beharrean dauden pertsonetikiko elkartasun handia erakutsi dute. Nazioarteko erakundeek, hala nola, Iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandataritzaren (ACNUR, gaztelaniazko siglen arabera) bulegoak, Kolonbia izan dute barneko lekualdatze behartuaz eta babesaz duten kezken ardatzetako bat. Hala ere, distantzia handiak daude errefuxiatuen arretarako nazioarteko arau-esparruaren eta horiek babes-sistema nazionaletan duten aplikazioaren artean. Hori dela eta, biktimizazio-modu berriak sustatzen dira, eta ziurgabetasun-egoera luzea dago haien eskaeren erantzunei buruz, beren bizitza-proiektuak egoera eta testuinguru desegokietan berreraikitzen saiatzen diren bitartean.

Erbestea, giza eskubideen urraketa

Txosten honek erakusten duenez, erbestea ez da giza eskubideen urraketa hutsa, bere ezaugarriekin eta bere eraginekin; kolonbiar talde zabal bati eragiten dion esperientzia ere bada. Bizia salbatzeko mugak zeharkatu behar izatea ez da barneko lekualdatze behartu baten parekoa –erbestera ateratzen jende askok lehenago lekualdatze bat edo gehiago zuten egina–. Eta irteerak bizia salbatzen lagundu bazuen ere, aldi berean kalte handia eragin zion norbanakoari eta familiari, eta denborari dagokionez –Kolonbiako enpresaburu honek dioen moduan–, horrek eragin sozial eta kolektibo sakona dakar. «Gauzarik gogorrenetako batek jo gaitu kolonbiarrok: erbesteak, gure herrialdetik, gure lur maitetik alde egin behar izateak eta urruti bizitzeak. Ez da gertaera zuzena –biktima askok hemen kontatuko duten bezala–, baina erbestea indarkeria eta gatazkaren eragin oso zuzena da. Nik beste herrialde batean bizi behar izatea eta familia zatitua [izatea]...»¹⁰.

Erbesteko historietan, gatazkan gertatutako bortxaketa guztien aztarnak daude: oso eragile armatu desberdinek behartu dituzte biktimak, eta gerran esku hartzen duten interesen sareak. Gainera, gatazkak haiei eta familiari eragindakoa jasateaz gain, deserrotzeari eta babesik ezari aurre egin behar diote. Gertaera horien ondorioek, aberria, lotura afektibo eta sozialak edo baita herritarrak ere galtzea ez ezik, jasandako jazarpena edo indarkeria ere eragiten dute, Estatuaren babesik eza barne, Estatu Kontseiluaren epai batzuetan onartu den bezala¹¹. Nazioarteko babes bilatzea izan zen kasu askotan bizia salbatzeko azken aukera.

9 283-VI-00004 elkarrizketa. Awa indigena, Txilen babes-eskatzailea 2019az gerotik.

10 001-CO-00608 elkarrizketa. Gatazka armatuak Kolonbiako enpresa-sektorean dituen eraginak. Quito, Ekuador, 2020.

11 Carlos Álvaro Bonilla Cifuentesen erbestearen kasuan, Medellingo zirkuitu espezializatuko epaile penalen aurreko fiskal delegatua, 1997an, Estatu Kontseiluak aintzat hartu zituen alabarengan, emaztearengan eta gurasoengan izandako eraginak (azken horiei dagokienez, barne-erbestearen kalteak nabarmendu zituen). Auzitegiak adierazi zuen «zerbitzuan hutsegitea izan zela, ez baitzen babestu Nazioaren Fiskaltza Nagusian arrisku-izaera zeukala jakina zen fiskal bat», eta gogorarazi zuen aurreko erabakietan esandakoa: «Bitartekoren baten bidez berehalako arrisku-egoera baten ezagutza lortzen edo ondorioztatzen duten agintariak behartuta daude lurraldeko biztanleek eskubide duten babes- eta segurtasun-betebehar positiboak gauzatzera». Estatu Kontseilua, epaia: 050012331000200102641 (44198), 2021eko martxoaren 17a. 164-66.

Dimentsio subjektiboa eta politikoa

Erbesteak eta babesak dimentsio objektibo bat dute, eta beste bat subjektiboa. Dimentsio objektibo eta politikoaren oinarria da irteerak Kolonbiatik, haren lotura sozialetatik eta erakundeetatik aldentzea dakarrela. Kolonbiako erbestea Kolonbiari buruzko susmoaren estereotipoarekin ikusteko joera dago migrazio-politiketan eta beste herrialde batzuetako babes-sistema nazionaletan; horrek isiluneak eta bizi izandakoa kontatzeko beldurra areagotzen ditu. Biktima askok ez dute beren esperientzia kontatu ere egin, sinetsiko ez dieten beldurrez edo babeserako profil eta irizpideetan edo herrialdeetako agintariek Kolonbiako gatazkari buruz duten informazioan egokitu behar izategatik.

Dimentsio subjektiboa galera horren oinazea da, eta horrek, askotan, herrialdetik urruntzea eta bizi bati berri bati ekiteko erronkari aurre egiteko baliabide emozional garrantzitsuak inbertitu beharra esan nahi du. Ihes egin zutenentzat, erbestea linbo luze moduko bat izan zen, bizirik egotea, bizirik utzi zituztelako edo bizirik irauteko aukera izan zutelako, baina beren burua ezagutzen ez duten errealitate berri batean. Pertsona horiek Kolonbiara ezin itzuli eta iritsierako edo harrerako herrialdea berea ezin eginaren artean bizi dira, inora ere ez doan bide batean.

Batzordeak zehazki erbesteaz elkarrizketatutako 2.080 biktima eta lekuko gehienek esperientzian¹², haustura behartu hori jasandako galeren tamaina asumitzeak dakarren doluak markatzen du, prozesu horretarako denborarik ere ez baitute izan¹³. Indar publikoaren eta paramilitarismoaren arteko loturak ikertzeagatik 2010ean babesa bilatzera behartu zuten zigor-epaile militar batek hauxe esan zuen:

«Mingarria izan zen hegaldi hori, nik itzulerarik gabeko hegalditzat kalifikatu dudana; estres-unea izan zen, ezezagunari aurre egiteko unea, une oso gogorrek igaro behar genituela jakitekoa: ez genuen hizkuntza ezagutzen, ez genekien gure esperientzia profesionala zer baitetan aitortuko ote ziguten ere... Gainera, ez genuen ideiarik ere, Europako lurzorua ukitzen ari ginen lehen aldia zen, Kolonbiatik sekula atera gabeak ginen, are gutxiago Europara»¹⁴.

Erbesteak esan nahi du pertsona bati bera dena izateko aukera ematen dion guztia galtzea: lurraldea, familia, lanbidea, bizitza bizitzeko modua, baita norbere buruaren aitortza ere. Erbestea nortasun berri bat ematen dion etiketa bihurtzen da hura bizi duenarentzat, ez da erizaina edo nekazaria, baizik eta erbesteratua, errefuxiatua/babestua, etorkina edo atzerritarra.

12 Informazio horren data 2022ko maiatzaren 31 da, baina elkarrizketak egiten jarraitu zen Batzordearen agintaldia amaitu arte.

13 Hala testigantzak entzuteak nola lana beste herrialde batzuetan ezartzeak zailtasun eta konplexutasun batzuk izan zituzten; azpiegitura eta baliabide falta, esaterako. Gainera, 2016ko urrian bakearen aldeko plebisizituak ekarri zuen polarizazioak baldintzatu egin zituen Bake Akordioaren erantzunak eta laguntzak. Agertoki horretan, Batzordeak pedagogia lan handia egin behar izan zuen bere agintaldiari buruz, eta horri esker jasotako testigantzak Kolonbiako erbestearen aniztasunaren adierazgarri dira. Elkarrizketak arduradun guztien biktimenak dira, gerrillari-taldeetako eta indar publikoko kide ohien ahotsak ere barne direla. Hala ere, ezin izan ziren herrialdetik atera ziren paramilitar ohien testigantzak jaso, Suedian eta Kanadan harremanak izateko hainbat saiakera egin arren. Era berean, aipatu behar da herrialdeko indarkeria-egoeren iraupenak, FARCen disidentzien eraginak eta ELNrekiko negoziazioa blokeatzeak, COVID-19aren ondoriozko osasun-larrialdiak eta Kolonbiako gizarte-giroak erbestean lan egiteko zailtasunak ekarri zituztela. Hala ere, txostenaren bolumen hori polifonia bat izatea espero da, Kolonbiako erbestearen kontakizunak eta esperientziak ezagutzeko eremuak sustatzen lagunduko duena, egia argitzeko eskaerari erantzunez.

14 001-VI-00005 elkarrizketa. Epaile penal militarra, 2010etik Europan erbesteratua.

Erbesteratu zirenek guztia galdu zuten, beren burua izan ezik, eta hori «bizitza gerraren aurrean defendatzea» dela aldarrikatu dute elkarrizketatutako pertsona batzuek. Minak eta galerak gorabehera, pertsonak ez ziren pasiboki gelditu, sormen- eta irmotasun-estrategia sinestezinetara jo zuten esperientzia horrek eragin zizkien kalte eta eragozpenei aurre egiteko. Eta, beren buruari eta beren familiei laguntzeaz gain, abegi ona eta elkartasuna erakutsi dute, egoera berean dauden beste batzuei laguntzeko eta Kolonbian bakea eraikitzeko.

Dena ezezaguna, bitxia eta besterena denean, lagun bat aparteko laguntza da. Horren adibide bat gizon homosexual bat da, narkotrafikoari lotutako gaizkile-talde batek egiten zituen «gizarte-garbiketak» direla eta, bere auzotik kanporatua izan zena. Ekuadorrera iritsi zenean, asilo-eskaera ukatu zioten, baina geratzeko modua bilatu zuen, bazekien itzultzea ez zela aukera bat. Besteen elkartasunari esker, bizirik iraun zuen:

«Aingeru bat aurkitu nuen, etxe honetako andre bera, eskua eman zidana; lana aurkitu nuen, zuek bezalako pertsonak, beti aintzat hartu izan ditudanak. Lagunak aurkitu nituen, hemen ezagun egin nauten kolonbiarren gunea. Orduan, lan egiten dut, ikasi, familia bizirik daukat, dena daukat; esperientzia polita geratu da»¹⁵.

Horren guztiaren berri ematen du txosten honek, geratu zirenak ahaztu gabe, haiena ere badelako erbesteko aberriaren haustura eta oinazearen esperientzia. Irten zen pertsona bakoitzeko, familia osatu gabe eta nahigabetu bat geratu zen Kolonbian. Bertan geratutakoen esperientzia horri «barne-erbestea» deitzen diogu, eta milioika pertsonari eragiten die Kolonbian.

Bigarren eta hirugarren belaunaldiak

Beren biziak salbatzeko herrialdetik atera ziren pertsona gehienek pentsatu zuten laster itzuliko zirela, baina ia inoiz ez ez zen hori gertatu. Esperientzia horrek hainbat hamarkadatan iraun duenez, arriskua luzatzeko baldintzengatik edo itzultzeko baldintzarik ezagatik, erbestearen bigarren eta hirugarren belaunaldiak sortu dira: seme-alabak edo bilobak; eta horien identitatea hemengo eta hango kulturaz haraindiko dimentsio horrek baldintzatzen du. Estatistiketan eta erregistroetan jasotzen ez diren arren –harrera-herrialdeetako herritarrak baitira–, indarkeriaren ondorioek eta familien minen proiektzioak berezko eragina dute. María irakasle eta nekazariak erbesteak bere seme-alabentzat zer eragin izan zuen kontatzen du:

«Herrialdetik irtetea ez zen izan hainbeste... agian guk, familia gisa, herrialde berri bat ezagutzeko emozioa sentitzen genuen, dena uztearena, estres hori guztia, geneukan estuasun hori, non haurrek gure estresa bakarrik jasotzen baitzuten. Baina ez zen hori bakarrik izan. Nik, gero pentsatzen dudanean... nire seme-alabei sustriak moztea izan zen, horrek eragiten dit minik handiena»¹⁶.

Beste herrialde batean jaio zirenentzat, beren nortasuna eraikitzeak –askotan binazionala, edo harrera-herrialdearekin asimilatua beste kasu batzuetan– Kolonbiarekin eta bertan geratu zirenekin

15 436-VI-00001 elkarrizketa. LGBTIQ+ liderra, Ekuadorren erbesteratua 2013az geroztik.

16 202-VI-00002 elkarrizketa. Irakasle eta akademikoa, Suedian erbesteratua 1993az geroztik.

loturak berrezartzeko egia baten beharra du. Hala ere, aldaketa horiek guztiek bizi izandakoari buruz hitz egiteko eta esperientziak ulertzeko aukera eskatzen dute. Hala adierazi zuen gazte-talde batek gurasoekin Batzordearen topaketa batean hitz egitean: «Ez dugu nahi hainbeste zer gertatu zen kontatzea, zer gertatu zitzaien baizik»¹⁷. Historia emozional hori testigantzetan eta topaketetan mobilizatzen denaren zati bat da, eta beren esperientzia eta identitate propioekin adiskidetzeko modu bat da, baita arrotza eta haiena den eta aldi berean maitea eta mingarria den herrialde horrekin ere.

Galera neurtezina eta ezinbesteko ekarpena

Kolonbian izaera desberdineko erakunde, plataforma, sindikatu, gremio eta prozesu komunitarioek eragin handia izan zuten erbestera atera behar izan zuten buruzagien eta kideen galeraren ondorioz. Horrekin batera, galera hori demokraziak ere jasan zuen, herriak giza kapital oso baliotsua galdu baitzuen; esperientzia ikaragarri handi bat erbesteratu zutenen atzetik joan zen, epaile, nekazari, irakasle, ikasle, indigena, lider afro-ondorengo, kazetari, merkatari eta enpresaburuen atzetik.

Erbesteratu askok parte hartzeko eta mobilizazio sozialerako guneak txertatu dituzte Kolonbiako gatazka armatuaren ikuspenaren inguruan, harrera-herrialdeetatik bizikidetzarako eta bakerako ekintza kolektiboen inguruan, eta Egiaren, Justiziaren eta Erreparazioaren Sistemako erakundeei kanpotik egindako ekarpenen inguruan. Beste batzuek beren bizitzak berreraikitzeke modu berriak ere bilatu dituzte itzuleran, nahiz eta parte hartu zuten espazio kolektiboak berdinak ez izan; kasu batzuetan jada ez dira existitzen. Beste pertsona batzuk urte batzuk geroago itzuli dira, beren prekaritatea jasanezina zelako. Itzuli direnak, gehienetan, Estatuaren laguntzarik gabe itzuli dira, haiek bilduko dituen politika espezifikorik gabe eta haien segurtasunerako eta berrintegrazioarako berme nahikorik gabe; itzultze horiek prozesu horien garrantzia erakusten dute, baina baita itzultzeko bermeen beharra ere.

Lidergo soziala edo politikoa izan duten itzultitako pertsonak aukera bat bilatu dute bake-prozesuan parte hartzeko, edo horixe izan da itzultzeko arrazoia. Haientzat, ordea, segurtasun-baldintzarik ezak eta gatazka armatuaren jarraitutasunak, batez ere eskualde batzuetan, beste arrisku bat ekarri dute berriz ere parte hartzeko ahaleginean. Itzultitako batzuek ziurgabetasun- eta babesgabetasun-testuinguru hori bizi izan dute, itzuli eta hilabete edo urte batzuetara berriz utzi behar izan baitute Kolonbia. Hala kontatu zuen Imelda Dazak, Cesar departamentuko Causa Común herri-mugimendu zibikoaren sortzaile eta Unión Patriótica-ko (UP, gastelaniaz) zinegotziak, Batzordearen aurrean; hiru seme-alaba txikiekin ihes egin behar izan zuen, eta Suedian babesa eskatu 1989ko irailean, haren eta alderdiko kideen aurkako mehatxuak, atentatuak eta seinalatzeak zirela eta. Imelda 1997an itzuli zen, baina 1999an berriro atera behar izan zuen:

«Eraikinean sentitzen hasi ginen maiz joan eta tinbrea jotzen zutela: “Ai ez, barkatu, ez zen hemen”, benetan hor bizi ote ginen egiaztatuz bezala. Ohartarazi eta beldurrez bete gintuzten gertakari batzuk izan ziren. Etxez eta telefono-zenbakiz aldatzea erabaki genuen. Beste eraikin batera joan ginen, beste zenbaki batera. Egun gutxi batzuk geroago hasi ziren deiak han egiten.

17 Erbesterako 1. eta 2. belaunaldien arteko topaketa. Suedia, Espainia, Suitza, Frantzia, Erresuma Batua, Belgika, Italia eta Ekuadorko parte-hartzaileak. Bilbo, 2020.

[...] Egun batean, goizean, haurrak eskolara eramateko jasotzen zituen autoa zetorreanean, irakasle bat hil zuten bere etxeko atarian. Handik egun batzuetara, haurren ikastetxean, haiek beren garraioan iritsi zirenean, Barranquillako zinegotzia zen aita baten gorpua jasotzen ari zen Polizia. Gure seme-alabak izututa iritsi ziren eguerdian, harrিতuta, eskandalizatuta, laborriak jota, guk ez genekien nola azaldu gertakari horiek. Azken batean, egoera izugarria zen herrialde osoan. Ni beldurrak jo ninduen. [...] Egun batean, unibertsitateko ataritik eskola-aretora nindoala, bat-batean gogoeta egin eta esan nuen: “Bueno, eta nik zer egiten dut hemen? Nire seme-alabek gustura sentitzen diren herrialde bat dute, ondo bizi diren herrialde bat, nik erabiltzen ditudan presio horien mende ez dauden herrialde bat, ez ditut zertan horren mende jarri. Suediara itzuliko naiz”¹⁸.

Batzordeak konplexutasun handiko ingurunean lan egin du. Pandemiak, harrerako herrialdeetako erbesterratu askoren zaugarritasun-baldintzak areagotu ez ezik, zenbait indarkeria-dinamikaren iraupenak eta eragile armatu berri eta zaharren eraketak nazioarteko babes bilatzen ari diren pertsonen irteera-bolada berri bat eragin dute, Bake Hitzarmena sinatu arren; bitartean, babes-eskaeren aurkako erantzunak areagotu egin dira. Iraunkortasun hori biktimentzat, gizartearentzat eta belaunaldi berrientzat onartezina denaren zati bat da.

«Irtzen nintzenetik, hainbat herrialdetan, ez zen atzean geratutakoengatik malko bat isurtzeko astirik izan; ez zen ezertarako astirik izan. Ekuadorren, berriro bilatu ninduten, eta Estatu Batuetara irten nintzen “aberririk gabeko” estatusen. Inoiz ez nuen pentsatu Estatu Batuetan geratzea, nire kulturarekin antz handiagoa zuen herrialde bat nahi nuen. Estatu Batuetako lagunek galdetu zidaten zergatik atera nintzen Kolonbiatik eta ez zidaten sinetsi. Hona etorri zara eta ezin duzu pentsatu, urteetan lan egin besterik ez. Nik esaten nien: “Duela 15 urte Kolonbian utzi nituen hildakoak duela zortzi egun entzun nituen hildako berberak dira”. Nik itzuli, itzuli, itzuli, itzuli nahi nuela pentsatu eta bi urtera, nire lagun hurbilenetako baten heriotzaren berri izan nuen. Caucako Unibertsitateko abokatua zen, eta Tolima San Antonion hil zuten paramilitarrek, hiru urteko seme txikiaren aurrean. Horrek bihotza hautsi zidan eta erabaki nuen: ingelesa ikastea tokatzen zait, geratzea tokatzen zait, ez naiz itzuliko»¹⁹.

Erbestearen konplexutasun horren berri emateko, txostena zortzi kapitulutan aurkeztu da. Kolonbiako erbestearen alderdi kuantitatibo eta kualitatiboaren azterketa da lehen kapitulua. Bigarreanean, azken bost hamarkadetako irteera behartuen zenbait une eta horiek azaltzen dituzten mugari edo gertaera bortitz batzuk agertzen dira. Hirugarrenak erbestearen konplexutasunean sakontzen du, barne-gatazka armatuan giza eskubideen urraketa larriak, profilak, ereduak eta erbestearen jarraitutasunak erakusten dituzten kausa adierazgarrienak aztertuz. Laugarren kapituluan, hainbat testuinguru eta garaitan herrialdetik irteteko ibilbideak deskribatzen dira, eta bosgarrenean nazioarteko babesaren esparru orokorra, oztopoak eta nazioarteko babes humanitarioaren beharra aztertzen dira.

Seigarren eta zazpigarren kapituluetan, pertsona edo familia erbesterratu izateak zer esan nahi duen azaltzen da, bai bakarka, bai taldean, kaltearen eta inpaktuen ikuspegitik, baina baita biktimen eta erakunde lanaren eta erresistentzia-esperientzien eta haien laguntza-sareen garrantziaren ikuspegitik ere. Zortzigarreanean, herrialdera itzultzearen agertokiak aurkeztzen dira, baita duintasun

18 001-VI-00007 elkarrizketa. Irakaslea eta Unión Patriótica-ko zuzendarietako, Suedian erbesterratua 1989az geroztik, itzulia.

19 Jairo Castilloren testigantza, CRICeko eta ONICeko kidea, Estatu Batuetan erbesterratua. Egiaren Batzordea, Gure ahotsen itzulera.

baldintzak eta eskubideen bermea izateko oztopoak eta erronkak ere. Azkenik, txosten honetan gomendio batzuk egiten dira, erbestearen esperientzia memoria kolektiboan eta Kolonbian bakea eraikitzeke politketan txertatzeko, aitortzarako, erreparaziorako eta errepikapenik ezerako bermeak barne, bai eta itzultzeko, justizia bilatzeko eta zigorgabetasunaren amaierarako beharrezkoak eta integralak diren baldintzak ere.

Liburu hau irekitzea «oraindik kontatu ez diren eta sentitzen eta hitz egiten duten egiak erakusten dituzten bizien trazueta» sartzea da. «Eta nahiko nuke zauri honen eta bertan bizi diren bizitzetako ikasgaien munduan zehar bidaiatzeak dakarren jakin-mina piztu»²⁰.

20 Martín Beristain, *Una maleta colombiana*, 9.

Egiaren batzordearen esperientzia

Kolonbiako erbestearen entzuketan

Nik uste dut gu Batzordetik aurrera hasi garela existitzen; kolonbiarrarentzat, familia askorentzat existitzen, ez naiz nireaz ari –maitagarria da, eta beti lagundu zidan–, joan zen pertsona arbuiatu zuten beste batzuei buruz baizik; gure ibesa arbuiatu zuten burkide militante askorentzat [...]. Nik sentitzen dut Batzordeak balio bat eman ziola erbesteratuari, bitza eta zer eraman zuen esateko eskubidea emanaz.

Emakume erbesteratua, 2021²¹

Gatazka armatu edo diktadura baten ondoren egiaren batzordeak landu dituzten trantsizio politikoetan, erbestea –oro har– ez da behar bezala aintzat hartu. Egiaren batzorde batek erbeste luze, konplexu eta zatikatu bati, hainbeste herrialdetan hedatua gainera, heltzen dion lehen aldia da. Erbesteari ahotsa emateko biktimek egin behar izan zuten borroka eta exigentzia funtsezkoak izan ziren prozesu horri ekiteko, eta Batzordearentzat berarentzat ere ikusezina zen errealitate baten kontzientzia hartzea ekarri zuen. Hori funtsezko urratsa izan da *Kolonbiatik kanpoko Kolonbia* hori ezagutzeko. «Munduaren» lurraldearen tamainak, bai eta Kolonbiako biztanleak erbestean sakabanatzeak eta bakartzeak ere, Kolonbiako lanaz gain, beste erronka batzuk ekarri zituzten. Gainera, muga ekonomiko eta administratiboen eta talde bat herritik kanpo izateko aukera urrien ondorioz, estrategia errepikakorra eta lankidetzakoa diseinatu behar izan zen. Kanpoko kolonbiar komunitateko biktima askok, bizirik ateratako askok eta kide askok Batzordeari adierazi zioten garrantzitsua zela Kolonbiako erbestearen egia hori eraikitzeke rol aktiboa eta parte-hartzailea izatea: «Ez dugu aztergai izan nahi, prozesu horren subjektu baizik».

Lankidetzako eredu bat

Uste sendo horrekin –eta lan konplexu hori egiteko aurreko erreferenterik gabe–, Nazioarteko Makroterritorialak²² lankidetzako lana egitea erabaki zuen, 24 herrialdetan, Kolonbiako erbesteari eta migrazio behartuari dagokienez ibilbidea eta esperientzia duten sare, antolakunde, erakunde eta pertsonekin. Sare horiek “nodo” edo lantalde gisa eratu ziren, eta nagusiki biktimek eta lehendik zeuden erakunde eta plataformek osatu zituzten, baina beste batzuk ere sortu ziren. Denekin, pedagogia- eta prestakuntza-espazioak sortu ziren, konfiantza-egoerak eta elkarrizketak indartzeko, eta, hartara, Batzordeak erbesteko egia argitze-prozesura eta biktimen duintzera ekartzeko emandako agindua betetzeko. Dena den, gertaeretan inplikaturako arduradunen ondorioz Kolonbiako erbesteak ekarri dituen sakabanatze geografikoa eta zailtasun politikoak ikusita, bai eta balioespen edo jarrera politikoak edo polarizazio sozialak erbestean izan duen eragina ere, Batzordeak hiru helburu nagusi izan zituen: 1) FARC-EPrekiko bake-prozesuak duen garrantzia ikusaraztea, eta beste eragile batzuekin

21 Erbesteratutako emakumea, Frantziako Egiaren Batzordearen aitortza-gunean, 2021ean.

22 Lurralde Zuzendaritzako Batzordeko lantaldea.

egin beharreko birmoldaketa eta eraldaketa; 2) bakea lortzeko eta gizarte-sarea berreraikitze bide gisa egi ardatz izango zuten ekintzak eraikitzea, eta 3) prozesu horretan erbesteko egiak sartzea.

Bidean, Batzordearen aurkezpenak eta pedagogia egin ziren Mexikon, Buenos Airesen, Montrealen, Washingtonen, Bartzelonan, Madrilen, Genevan eta Londresen, bi erakunderen laguntzarekin: Justizia Trantsizionalerako Nazioarteko Zentroa (ICTJ, gaztelaniazko siglen arabera) eta Migrazioetarako Nazioarteko Erakundea (OIM, gaztelaniazko siglen arabera). Ondoren, harremanetarako eta aurkezpenetarako jarduerak beste herrialde batzuetara zabaldu ziren.

Ondoren, biktimekiko harremanetarako eta testigantzak hartzeko laguntza-taldeak hautatu ziren. Horretarako, hamaika prestakuntza-jardunaldi egin ziren munduko hainbat eskualdetan: bi Hego Amerikan, bat Erdialdeko Amerikan, bi European, bat AEBn, bat Kanadan, bi Ekuadorren, bat Venezuelan eta bat Brasilen²³. Eremu horietan, gai hauek landu ziren: Batzordearen agintaldia eta egitura, indarkeriak biktimengan duen eragina, entzuteko prozesua –horren ondorioz, testigantzak hartzeko entrenamendua egin zen–, tresna metodologikoak eta informazioa babesteko eta zaintzeko protokoloak ezagutzea, eta tokiko lan-sareak sortzea edo indartzea. 400 boluntariok baino gehiagok hartu zuten parte trebakuntza horietan, eta 200 elkarrizketatzaile izan ziren. Elkarrizketatzaile horien erritmoa lanaren konplexutasunera, COVID-19aren ondoriozko osasun-larrialdia eta atzerrian agintaldia garatzeko nazioarteko lankidetzabaliabideak bilatzera egokitu egin behar izan zen. Estrategia horren bidez, biktima eta lekuko kopuru esanguratsu batera iritsi nahi izan zen, eta, horrez gain, Kolonbian bakearen, errefuxiatu eta migratzaile behartuekin lan egitearen eta giza eskubideen alde borrokatzen diren biktimen eta sektoreen prozesu kolektiboak babestu eta agerian jarri nahi izan ziren.

Elkarrizketa-taldeak eta laguntza-nodoak prestatzea

Batzordearen lurralde-hedapenaren esparruan, lan-nodoak edo -sareak sortu ziren²⁴ herrialde hauetan: Venezuela eta Ekuador, Andeetako eskualdean; Txile, Argentina, Brasil eta Uruguai, Hego Konoan; Panama eta Costa Rica, Erdialdeko Amerikan; Mexiko, Estatu Batuak eta Kanada, Ipar Amerikan; Frantzia, Erresuma Batua, Alemania, Norvegia, Italia, Espainia, Suitza, Belgika, Herbehereak eta Danimarka, European, eta herrialde batzuetan hainbat nodo izan ziren (adibidez, Espainian: Katalunia, Euskadi, Madril eta Valentzia). Horrez gain, Perun eta Australian ere hartu ziren testigantzak, eta itzulitako pertsonenak Kolonbian; Ekuador, Mexiko, Argentina, Euskadi-Espainia eta Erresuma Batuko lotura-pertsona batzuen laguntza ere izan zen hainbat alditan. Kataluniako Bakearen Aldeko Nazioarteko Institutuak (IPIC, gaztelaniazko eta katalanezko siglen arabera), Kataluniako Parlamentuaren menpeko erakunde publikoak, idazkaritza teknikoaren rola bete zuen European, Batzordearen lana koordinatzeko, eta baliabideak eta Kolonbiari buruzko bere lan-esperientzia eskaini zituen.

Nodoekin egindako lanean topaketak, hitzaldiak, solasaldiak, gaikako mahaiak, argazki-erakusketak, dokumentalak, horma-irudien eraikuntzak, antzerki-lanak eta *Erbestearen arkeologia biziak* proiektua

23 Brasilgo prestakuntza baliabide birtualen bidez egin zen 2020an, COVID-19aren osasun-larrialdia zela eta, eta Rio de Janeiron, São Paulon, Natal eta Porto Alegren izan zuen hainbat pertsonaren parte-hartzea.

24 Biktima-taldeek, gizarte zibileko erakunde eta plataformetako kideek, unibertsitateek, ikerketa-zentroek eta Kolonbiako bakearekin, giza eskubideekin eta egiaren bilaketarekin konprometitutako erakundeek osatu zituzten nodoak. Ezein antolakundetako kide ez ziren boluntarioek ere parte hartu zuten, eta horietako asko biktima edo migratzaile kolonbiarrak ziren.

egin dira²⁵, gizarte zibilarekin eta tokiko gobernuekin eragina duten espazioez gain, erbesterratuak subjektu politiko gisa onartzean oinarritutako sormen- eta konpromiso-ariketan. Batzordeak Bogotan duen ikertzaile-taldearekin batera, eskualdeko banaketa geografiko bat egin zen, nodoen lanari laguntza, dinamizazioa eta jarraipena egiteko. Testigantza-emaileen bidezko entzute aktiboan eta gizarte-elkarrizketako jardueretan²⁶, nodoek dinamika «internodalak» eraiki zituzten. Generoko, arlo psikosozialeko, bigarren eta hirugarren belaunaldietako eta desagertze behartuko talde internodalek eta etnia arteko mahaiak²⁷ nazioarteko prestakuntza-, hausnarketa- eta akonpainamendu-ekintzak gidatu eta koordinatu dituzte. Talde horiek funtsezkoak izan ziren erbestearekin eta migrazio behartuarekin zerikusia duten eragileekin gizarte-elkarrizketarako estrategia zabaltzeko, eta Batzordeak erbestea aitortzeko egindako ekintzak garatzeko: Egiaren aldeko VII. Topaketa, “Gure ahotsen itzulera” 2020ko azaroan, aldi berean Bogotan eta Bilbon egin zena, eta Kolonbiarekiko mugetan egindako erbestearen Aitortza, 2021eko otsailean, Ibarra (Ekuador) egin zen mugaz gaindiko lekualdatzearen biktimen aitortzari buruzko ekitaldia.

Batzordeak pedagogia eta sentsibilizazio jarduerak ere egin zituen Kolonbiako kontsulatuarekin eta enbaxadekin, baita ACNURen eskualdeko bulegoekin ere, eta Egiaren, Justiziaren, Erreparazioaren eta Errepublikaren Ezaren Sistema (SVJNR, gaztelaniazko siglen arabera) Kolonbiako kontsuletxei, Bakerako Jurisdikzio Bereziarekin (JEP) eta Desagertutako Pertsonen Bilaketa Unitatearekin (UBPD, gaztelaniazko siglen arabera), gaztelaniazko siglen arabera) batera, aurkezteko topaketa bat; baita elkarrizketa eta solasaldi birtualak ere nazioarteko babesaz eta migrazioaz arduratzen diren hainbat herrialdetako erakundeekin²⁸, eta asilo-eskaerei aurre egiten dieten administrazio-auzitegiaren ordezkariekin, besteak beste, Espainian, Suedian, Mexikon, Costa Rican, Venezuelen, Txilen eta Argentinan, haiek duten ikuspegia, datuak eta esperientzia ezagutzeko.

Entzuketa eta biktimen eta erakundeen aitortza

Gizarte zibileko antolakundeen, erakundeen eta biktimen lankidetzari esker, bi mila testigantza baino gehiago jaso ahal izan ziren 24 herrialdetan: erbesterratuak eta errefuxiatuak, itzuliak eta nazioarteko babeseko lekuko adituak. Era berean, hainbat pertsona elkarrizketatu ziren: babes- eta asilo-prozesuetan biktimei laguntzen dietenak, aholkularitza juridikoa eta psikosoziala ematen dutenak edo Kolonbiako erbestea giza eskubideen nazioarteko agertokietan kontuan hartzeko ekintzak egiten dituztenak. Horrez gain, Indar Militarretako kideak eta FARC-EPko kide ohiak eta atzerrian dauden eta JEP-en aurrean agertu ez ziren hirugarren zibil batzuk elkarrizketatu ziren.

25 Egiaren Batzordeak, Hugo Ramírez irakasle eta ikertzailearen ekimenari esker, bultzatu zuen proiektu bat izan zen *Erbestearen arkeologia biziak*; biktimei aukera eman zien –eraman ahal izan zituzten objektuen argazkien bidez– beren historia kontatzeko eta erbesteko bizipenaren lekuko izateko.

26 Gizarte-elkarrizketa Egiaren Batzordearen lan-ildo estrategikoetako bat da, ikerketa-ildoarekin batera, bai *Txostena* egiteari –ikerketa-ariketa baten emaitza– bai gizartearen prestatzeko *prozesuari* dagokionez, Batzordearen legatua besterentzearen aurrean. Gizarte-elkarrizketa gatazka armatuarekin harremana izan duten subjektuen arteko elkarrizketan (biktimak, eragile arduradunak, gizarteko sektoreak eta instituzionaltasuna) oinarritzen da, errespetu-esparru batean gatazkaren konplexutasuna ulertu, eraginak dimentsionatu eta gizarte erreplikapenik ezerantz mobilizatu ahal izateko.

27 Europan, Ekuadorren eta Ipar Amerikan asilo eta babesaren erakunde eta pertsona biktimek osatutako espazioa; populazio afro-ondorengoa, nekazariak, herri indigenak, *raizalak* eta *palenqueroak* dira, bai eta itzulitako pertsonak ere.

28 Errefuxiatuen Batzorde Nazionala (Conare), Latinoamerikako zenbait herrialdetan; Mexikoko Errefuxiatuei Laguntzeko Batzordea (Comar) eta Errefuxiatuei Laguntzeko Bulegoa (OAR), Espainian, beste askoren artean.

Erbestean UP-ko biktimekin, bizirik atera zirenekin eta familiartekoekin lan egin zuen bitartean, Batzordeak JEP-ekin batera entzuketa bateratua²⁹ egin zuen, 06 makrokasua, «Unión Patriótica-ko kideen biktimizazioa», irekitzearen esparruan, eta Batzordeak hori argitzeko prozesuan. Bi erakundeek, beren aginteen izaera errespetatuz, entzuketa hori «biktimaren alde»³⁰ printzipioan oinarrituta hitzartzea erabaki zuten. Batzordeak eskerrak eman dizkie erakunde eta antolakunde guztiei, eginkizun horretan egia argitzeko eta justiziaren aldeko lanean izandako prestasunagatik³¹.

Garrantzitsua da, halaber, ACNUR-ekin egindako lana nabarmentzea. Horren bidez, lan-mahai bat sortu zen nazioarteko babes behar duten kolonbiarren kopuruak eta egoera aztertzeko. Informazioa –nahiz eta publikoa izan– zatitu egin da orain arte, ez bakarrik erregistro eta kategoria motengatik, baita denboran izan duen bilakaerari buruzko argitasunik ezagatik ere. Lan bateratuari esker, modu argiago eta sendoagoan hurbildu ahal izan zen Kolonbiako erbestearen errealitatera, Kolonbian bigarren biktimizazioa baita, lekualdatze behartuaren ondoren.

Hainbat erakunde, plataforma eta biktima-taldek ibilbide bat egin dute Kolonbiako erbestea ikusarazteko, eta mundu osoan beren eskubideak exijitzeko eskaerak egin dituzte, bake-akordioa sinatu aurretik. Lan hau horien parte-hartzeari eta konfiantzari esker egin ahal izan da, eta ekarpen oso baliotsua izan da Kolonbiarentzat eta munduko beste herrialde eta batzorde batzuentzat. Batzordeari laguntzeko erakunde eta taldeek 30 txosten eta dokumentu baino gehiago³² egin eta aurkeztu zituzten, erbestea argitzeko eta testigantzak kontrastatzeko.

Biktimen ahotsak eta testigantzak

Kolonbiako erbesteari buruzko kapitulu honetan, testigantzen aipamen testual ugari jaso dira. Zati horiek aukeratzeko, irizpide hauek hartu ziren kontuan: adierazgarritasuna, konfidentzialtasuna eta hemen lantzen diren gaien gogoeta kolektiborako ekarpenak. Hitzordu bakoitza ez da pertsona bakar baten historia, beste biktima batzuen esperientzia irudikatzen du aldi berean, eta, kasu askotan, dimentsio kolektibo bat du; beren esperientziak ezagutzera gonbidatzen duten bizitza-kontakizunak

29 2019ko irailetik abendura bitartean, UP-ko biktima eta senideei entzuteko saioak egin ziren Kanadan, Torontoko Errefuxiatuentzako Arreta Zentroan; Buenos Airesen, Argentinan, Haroldo Conti Oroimenaren Kultur Zentroan, Armadaren Mekanika Eskola zaharrean (ESMA) kokatua; eta Genevan, Suitzan, Giza Eskubideen Bulegoan. Azkenik, 2021eko ekainean, Madrilen, Espainian, Bakearen aldeko Mugimenduaren egoitzan, azken entzute-saio bat egin zen, eta Unión Patriótica-ko 37 biktimak eta Reiniciar Korporazioko kideek parte hartu zuten –erakunde horrek estatuko eta nazioarteko instantzien aurrean kasuko biktima gehienak ordezkatzan ditu, eta bere kudeaketa eta konfiantzarekin prozesu hori erraztu zuen–.

30 Biktimei emandako faboragarritasun-printzipioa (jarduketa judizialeko prozesu batean entzunak izateko eta beren esku dauden froga-elementuak emateko eskubidea).

31 Ikus *Unión Patriótica desde las cenizas* dokumentala, Bakerako Jurisdikzio Bereziarekin (JEP) batera egindako lanaren emaitza. Batzordearen ikerketaren eta JEP-en 06 kasuaren esparruan egin zen, “UP-ko kideen biktimizazioa” izenekoa, 2019ko otsailean zabaldua. JEPEk Batzordeari UPko biktimekin eta bizirik atera zirenekin erbestean aurreratutako lanagatik eskaera egin eta gero, beren agintaldien esparruan, bi erakundeek erabaki zuten kanpoko biktimei entzuteko prozesu hori gauzatzea.

32 Txosten horiek erbestearen esperientzia aztertzen dute ikuspegi etnikoetatik, genero-ikuspegitik eta askotariko ikuspegi sexualetatik, bai eta irteera eragin zuten gertaeren sakontasunetik ere, hala nola, desagertze behartua, giza eskubideen aldeleen jazarpena eta bigarren eta hirugarren belaunaldiei eta nekazari-komunitateei eragindako kalte partikularrak. Biktimek herrialde hartzaileetako nazioarteko babes-sistemekin izandako esperientzia ere erakusten dute.

dira. Erbesteari buruz Batzordeak jasotako testigantza guztiak entzun, irakurri eta aztertu zituen Nazioarteko Makroterritorialeko lantaldeak.

Kapituluari erantsitako dokumentu batean, *Testigantzen legatua* dago; testigantza guztien laburpena du, eta esperientzia horren aniztasun handiaren berri ematen du, bai eta haien historietan dagoen tamaina eta sakontasunaren berri ere. Ikerketa-prozesuan ere bederatzi azterketa-kasu argitzeari eman zitzaion lehentasuna; erbestearen, mugaz gaindiko lekualdatzearen eta itzuleraren pluraltasuna eta konplexutasuna adierazten dituzte³³. Lan osagarri hori guztia, *Erbestearen arkeologia biziak*-ekin batera, plataforma transmedian dago eskuragarri³⁴.

Azkenik, erbesteko biktimekin lan egiteak –testigantza eman zutenentzat–, bizi izan zuten amesgaiztoa gogoratzeaz gain, atera zirenetik atzera uzten saiatu ziren oinaze hori jasateko izan dituzten baliabideak ezagutzea ekarri du. Elkarrizketatzaileentzat, berriz, esperientzia horietako batzuk partekatzea esan nahi izan du, bizi izandako enpatia eta elkartasunaren zati bat berenganatzea, eta beren esperientziei aurre egitea, beste batzuk entzutean aktibatzen baitira. Batzordearen iritziz, ekarpen izugarria da hori bakea eraikitzeke, herriarentzat eta belaunaldi berrientzat (lan egitearekin eta gerrako zauriak gainditzearekin tematuta baitaude).

Batzordeak horien balioa eta ekarpena aitortzen ditu, eta prozesu eta konpromiso horren berri ematen saiatzen da. Txilen babesat bilatu zuen emakume awa batek Batzordeari esan zion bezala: «Oso garrantzitsua da Kolonbian gu ahantz ez gaitzaten»³⁵. Txosten honen helburua haientzat eta erbesteko ahots eta aurpegi guztientzat bozgorailu izatea da, Kolonbian inork ez ditzan ahaztu, inoiz ez gehiago.

33 Hauek dira kasuak: 1) Biktimizazio judiziala, Gloria Lara de Echeverri bahitu eta hiltzeagatik; 2) DASen gerra zikina European, erbestearen jazarpena 2003-2006 bitartean; 3) Bellacruz Etxaldeko nekazariak beren egia kontatzen dute erbestetik; 4) Antofagasta: kolonbiar Itsaso Barea, Txilen, 2000-2010; 5) Urabako iparraldeko nekazarien lekualdatze behartua, gabetzea eta erbesteratzea; 6) Bari herri indigenaren mugaz gaindiko lekualdatzea eta itzulera; 7) Catumboko nekazarien mugaz gaindiko lekualdatzea eta itzulera; 8) Mugaz gaindiko herri etnikoak: zio bain (siona) herri indigena; eta 9) Komunitate indigena, afro eta nekazarien mugaz gaindiko lekualdatzeak Kolonbia eta Panama arteko mugan.

34 Kolonbiako Egiaren Batzordearen helburua izan zen –hedabide tradizioaletan idatzitako amaierako txostenaz gain–, hainbat tresna interaktibo baliatzen dituen narratiba transmedia bat ematea: grafikoak, soinu-tresnak, ikus-entzunezkoak, fotografikoak, dokumentalak, prozesuak eta komunikabideak; gatazka armatuaren ereduak eta kausa-azalpenak modu argigarri, integratzaile eta erakargarrian irakurtzeko aukera eman nahian. Irakurketa hori, aurrerapen digitalekin bat datorrena, gizarte osoarentzako alternatiba den arren, bereziki da eraginkorra gazteentzat eta haurrentzat, klik batean eskura dagoen informazioa bilatzen dutenentzat. Apustu horrek gizarteari hurbiltzen dizkio Egiaren Batzordeari beren testigantzak eman zizkieten ahotsak, Batzordearen txostenaren jatorrian dauden haien bizipenak eta egiak. Informazio gehiago izateko, kontsultatu Egia Argitzeko Artxiboa (comisiondelaverdad.co)

35 Egiaren batzordearen esperientzia Kolonbiako erbestearen entzuketan.
283-VI-00004 elkarrizketa. Awa indigena, Txilen babes-eskatzailea 2019az geroztik.

Kolonbiatik kanpoko Kolonbia

Erbestearen egiak

- 1. Kolonbiako Erbestea: gatazka armatuaren aurpegi eta ahots guztiak.** Erbesteak gatazka armatuak eta hark hainbat hamarkadatan izan duen luzapenak utzi dituzten biktimen aurpegiak eta ahotsak ditu. Gatazka armatuz betetako urte luze hauetan, herrialdeko gizarte-sektore guztiei eragin diete horiek. Batzordeak Kolonbiatik kanpoko Kolonbia hau onartu eta agerian uzten du, eta herrialdeetik nahitaez ateratzeko arrazoiak eta erantzukizunak ere onartzen ditu. Hainbat sektoreen bazterketa-gune komuna da, baina historia kolektibo baten parte diren ehunka mila esperientzia ere onartzen ditu.
- 2. Erbestearen dimentsioak: populazio ikusezin bat.** Biktimen Unitatearen inkesta ofizialek¹ adierazten dute 1985etik 2021era bitartean soilik, beste eperik kontuan hartu gabe, barruko gatazka armatuan bederatzi milioi biktima baino gehiago izan zirela, baina horren ondorioz herrialdeetik ihes egin behar izan zuten gehienak ez daude kopuru horretan sartuta. Biktimen legeak, adibidez, barneko lekualdatze behartua onartzen du, baina ez bere bizia babesteko muga zeharkatu behar izan zuenarena, eta Biktimen Unitateak² 26.269 kolonbiar baino ez ditu hartu kanpoko biktimatzat. Hala ere, ACNUR bulegoko datu berrienen arabera, Egiaren Batzordearekin batera egindako lan batean oinarrituta, gatazka armatuan zehar *milioi bat pertsonak baino gehiagok mugak zeharkatu behar izan dituzte gatazka armatutik ihesi*³. Erbestea eta babesa ikusezina dira, ez bakarrik beren azpierregero handiagatik, baita egiturazko arrazoiengatik ere, hala nola ez aitortzea babes eta akonpainamendu neurriak eskatzen dituen giza eskubideen urratze gisa; horregatik aurkitu zuten pertsona gehienek, erbesteratu aurretik ere, arreta falta eta babesik eza. Nahiz eta kasu askotan pertsonak bizi izandakoari buruzko salaketak egin zituzten, sarritan horrek ez zuen babesa handiagoa izatea eragin; izan ere, kasu batzuetan arriskua areagotu egin zen. Estigmatizazioa ikusezintasun horren parte izan da, eta konfiantza falta da zigorgabetasunaren lehen atea.
- 3. Erbestea, giza eskubideen urraketa.** Txostenak erakusten duenez, erbestea giza eskubideen urraketa da, bere ezaugarriak eta eraginak dituen, eta Kolonbiako biztanle talde handi batek jasotzen dituenak. Bizia salbatzeko mugak zeharkatu behar izatea ez da barneko lekualdatze behartu baten parekoa –erbestera atera zen jende askok lehenago bizi izan zuen lekualdatze hori–. Irteerak bizia

1 Biktimentzako Unitatea. Biktimen Erregistro Bakarra (RUV), «Lurralde-zuzendaritzaren arabera kontsulta».

2 Biktimentzako Unitatea. Biktimen Erregistro Bakarra (RUV), «Lurralde-zuzendaritzaren arabera kontsulta».

3 Gerraren ondorioz behartuta irtendako kolonbiarrei buruz sakondu duten txosten eta azterlan askok ACNUR-ek 2007an sortutako kopurua erabili dute erreferentzia kuantitatibo gisa. Kopuru horretan, behartuta migratu zuten 500.000 pertsona kolonbiar inguru arakatu ziren. Kopuru hori mugarriz izan zen ikusezina bihurtutako errealitate horren karakterizazioan; izan ere, urte horretan hasi zen ACNUR «*Refugee-like*» kategoria erregistratzen («errefuxiatu-egoeraren antzeko egoeran dauden pertsonak»), eta hor sartzen dira formalki babes-izaera eskatu ez zutenak, baina, ACNUR-en arabera, barne-gatazketan zeuden herrialdeetatik atera eta nazioarteko babesa behar duten pertsonatza hartzen direnak. Kategoria berri horrek lagundu egin zuen 2007an nazioarteko babesa behar zuten 478.000 kolonbiar inguru aitortzen, estatistika ofizialetan erregistratu gabe zeudenak; gaur egun oraindik erregistratzen ari dira. Nolanahi, erregistroan sartuta ere, onarpenari buruzko beste datu batzuk ikusezina bihurtzen dira oraindik. Testuinguru horretan, Egiaren Batzordeak eta Panamako ACNUR-en eskualdeko bulegoak, lan bateratu batean, erregistratutako kategoriak, herrialdeak eta kasuak berrikusi zituzten. Bereziki, 2020ko zifra aztertu zen; horren arabera, milioi bat kolonbiarrek baino gehiagok zeharkatu behar izan zituzten Kolonbiako mugak gatazka armatutik ihesi.

salbatzen lagundu bazuen ere, aldi berean kalte handia egin zion norbanakoari eta familiari, eta Kolonbiako kasuan, denboran luze iraun zuenez, gizartean eta taldean eragin handia izan zuen. Erbesteko historietan, gatazkan gertatutako bortxaketa guztien aztarnak daude: biktimek, askotariko eragile armatuen eta haien interes-bilbaduren biktimek, gatazka beren eta beren familien haragian nozitzeaz gain, babesik ezaren ondorioz deserrotzeari eta abandonuari aurre egin behar diete. Gertaera horien ondorioek, aberria, lotura afektibo eta sozialak edo are herritarrak galtzea ez ezik, jasandako jazarpena edo indarkeria ere eragiten dute, zuzeneko mehatxu-molde berriak eta Estatuaren babesik eza barne, kasu batzuetan Estatu Kontseiluak berak onartu duenez⁴. Nazioarteko babesak bilatzea izan zen kasu askotan bizia salbatzeko azken aukera.

4. Babesaren hizkuntza eta erbesteratuen esperientzia. Biktimei eta bizirik atera direnei buruzko gogoetak horiei buruz darabilgun hizkerak baldintzatzen ditu, eta, normalean, termino desberdinak erabiltzen dira: «asiloa edo babesak eskatzen duten pertsonak», «nazioarteko babesak behar dutenak», «erbesteratuak», «kanpoko biktimak» edo «mugaz gaindiko lekualdatuak». Izendapen horiek guztiak aipatu dituzte bai biktimek bai babesaren mundu instituzionalak, bai Estatuak eta gobernuak kanpoko erakundeetako funtzionarioek, bai Egiaren Batzordeak Kolonbiatik kanpoko herrialde hartzaileetan integratzeko entzun dituen nazioarteko agentziek eta laguntza-erakundeek. Hala ere, haien esperientzietara hurbiltzeko moduak dira, eta, berez, sufrimendu horri eta herrialdeek, erakunde arduradunek edo babesarekin lotutako nazioarteko tresnen arabera jasotzen duten onarpen-mailari erreparatu diete. Batzordearen iritziz, erbestea pertsona bizi den herrialdeko gatazka armatuak eragindako irteera eta bereizketa behartuari dagokio, eta, nahiz eta esperientzia hori irteera behartuarekin lotuta deskribatutako indarkeria-egoera guztietarako komuna izan, «erbeste» terminoa erabili da, txostenean, arrazoi politikoak eta gatazka armatuaren eta herrialdeetako ihesaren gertaerekiko lotura adierazteko. Egoera, estatus eta esperientzia horiek guztiak kontuan hartu eta entzun dira Batzordearen lanean. Babesaren despolitizazio gero eta handiagoa dago, eta, horren ondorioz, pertsonak migratzaile ekonomiko edo akademiko bihurtzen dira, beren egoera gatazkaren baldintzetatik eta irteeraren arrazoietatik bereiziz. Nolanahi ere, segurtasun-arazo edo laguntza humanitariotzat hartzen dira, baina ez giza eskubideen arazotzat. Nazioarteko babesik ez duten pertsona asko etorkin gisa erregistratu dira.

5. Desterruarenaldiak eta denborak. Kolonbiako erbestea munduko luzeena da, 60 urte geroago ere gertatzen jarraitzen baitu. Kolonbiako biztanleentzako babesaren bilaketaren tamaina eta bilakaera barne gatazka armatuaren etapei, jarraitutasunei, etenei, aldaketei eta errepikapenei dagokie. Txostenak Kolonbiako irteera behartuen intentsitate handieneko garaiak eta haien testuinguru soziopolitikoak azaltzen ditu, bai eta azken urteotako erbestearen iraunkortasun faktoreak ere. Batzordeak entzun zituen lehenengo erbeste kasuak berrogeita hamarreko hamarkadan kokatzen ziren, «Indarkeriaren» garaian –barne-gatazka armatuaren aurrekaria–. Hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan, Kolonbiako Alderdi Komunistako (PCC, gaztelaniazko siglen arabera)

⁴ Estatu Kontseiluak, Carlos Álvaro Bonilla Cifuentesen erbestearen kasuan, Antioquiako Administrazio Auzitegiaren epaia atzera bota zuen, 1997an Medellingo zirkuitu espezializatuko epaile penalen aurrean fiskal delegatu gisa zituen eginkizunetan aritzean sortutako mehatxuak erreparatzeko asmoa ukatu baitzion. Epaian, Magistraturak aintzat hartu zituen alabarengan, emaztearengan eta gurasoengan izandako eraginak (azken horiei dagokienez, barne-erbestearen kalteak nabarmendu zituen). Auzitegiak adierazi zuen «zerbitzuan hutsegitea izan zela, ez baitzen babestu Nazioaren Fiskaltza Nagusian arrisku-izaera zeukala jakina zen fiskal bat», eta gogorarazi zuen aurreko erabakietan esandakoa: «Bitartekoren baten bidez berehalako arrisku-egoera baten ezagutza lortzen edo ondorioztatzen duten agintariak behartuta daude lurraldeko biztanleek eskubide duten babes- eta segurtasun-betebehar positiboak gauzatzera» (Estatu Kontseilua, Administrazioarekiko Auzien Sala. Hirugarren atala. B azpiatala, 050012331000200102641 (44198), 164-166) epaia.

buruzagi politiko eta militanteak, Oposizioko Batasun Nazionala (UNO, gaztelaniazko siglen arabera) eta ezkerreko beste mugimendu batzuk atera ziren, bereziki Segurtasun Estatutuaren esparruan (1978-1982), baita M-19ko eta EPLko gerrilletako kide eta jarraitzaileak ere. Hala ere, Batzordeak entzuteko prozesuan jasotako datuek erakusten dute migrazio behartuak intentsitate handiagoko aldiak izan dituela, etengabe gertatu bada ere. **Identifikatutako lehenengo aldia 1978tik 1991ra bitartekoa da**, non Batzordeak egindako elkarrizketetan⁵ erbestearen % 10,5 aipatzen baita. Garai horretako erbesteak, babesak eta migrazio behartuak gizarte-mugimenduetako kide eta liderrak jazartzeko testuinguruan kokatzen dira, hala nola, mugimendu sindikala, ikasle eta nekazariena; eta gerrilla batzuen eta Belisario Betancur (1982-1986), Virgilio Barco Vargas (1986-1990) eta César Gaviria Trujilloren (1990-1994) gobernuen arteko bake-akordioen ondorioz sortutako oposizioko alderdi politikoaren jazarpenean. Narkotrafikoaren kartel-gerrarekin indarkeria larriagotzeaz eta M-19ko, Nuevo Liberalismoko eta UPko buruzagi politikoaren magnizidioez gain. Urte horietan erbestera ziren pertsona batzuek giza eskubideen urraketa larriak aipatu zituzten Batzordean, Segurtasun Estatutuaren esparruan (1978-1982)⁶. **Bigarren aldiak, 1992 eta 2005 artekoak**, gatazka armatua larriagotzea, bahiketa zabaltzea, sarraskiak, hilketa selektiboa, jazarpen sistematikoa eta zigorgabetasuna areagotzea ekarri zuen. Batzordeak jasotako testigantzetan erbesteko gertaeren % 37,4 urte horietan gertatu zen. Herrialdea nahitaez utzi behar izan zuten gehienak sindikalistak, liderrak eta giza eskubideen aldeleak izan ziren, baita biktimen senideak, merkatariak, nekazariak, komunitate etnikoak eta gizarte-mugimenduak ere⁷. **Hirugarren aldiak, erabateko gerratik bake osatugabera (2006-2016)**, Batzordeak egindako elkarrizketen % 27,9k adierazten dute 2006 eta 2016 artean indarkeriazko ekintzak izan zirela, Kolobiako Autodefentsa Batuak (AUC, gaztelaniazko siglen arabera) desmobilizatzeko aldia Álvaro Uribe Vélezaren bigarren gobernuaren testuinguruan, erdi mailako koadroen eta paramilitarren osteko egituren jarraipena, orduan «Bacrim» deiturikoak, eta gerrillen ekintza, Juan Manuel Santosen gobernuaren (2010-2014, 2014-2018) eta FARC-EPren arteko Bake Akordioa negoziatu, sinatu eta ezarri arte. Bake Akordioa sinatzeak itxaropen-aldi bat ekarri zuen, baina gero zapuztuz joan zen, ez zelako behar bezala bete eta gatazka armatuak jarraipena izan zuelako, desmobilizatu ez ziren taldeen eta Askapen Nazionalerako Armadaren (ELN, gaztelaniazko siglen arabera) eskutik. Azkenik, **laugarren aldia, non erbestea iraunkortasunaren adierazle den, 2017-2022**. Batzordeak hartutako testigantzetatik, % 21,9 azken aldiari dagozkio, 2017-2022 bitartekoari. Bake-akordioa sinatzeak eragin positiboa izan zuen herrialdearen egoeran, eta fusilak une batez itzali ziren –pixka bat lehenago esan bezala–; hala ere, gaur egun, haren inplementazioaren erdian, gauzatzen ari diren sarraskien, hilketen, desagertuen eta mehatxuen ondorioz, erbestea gatazka armatuaren iraupenaren adierazle da. Batzordeak azken aldi honetan aztertutako kasuetan, sindikalisten, erkidegoko eta ingurumeneko liderren, agintari etnikoen, FARC-EPeko kide ohien edo

-
- 5 Erregistro horiek bat datoz UARIV-en Biktimen Erregistro Bakarrak dokumentatutakoarekin. Erregistro horretan, kanpoan 1.473 pertsonak aldi horretan gertatutakoak kontatu zituzten (RUVek erbestean erregistratutako gertakari guztien % 5,8); pertsona horiek, batez ere, mugako herrialdeetan daude, hala nola Venezuelan eta Ekuadorren, Espainian eta Europako beste herrialde batzuetan, eta Estatu Batuetan. Biktima gehienak Antioquia, Valle del Cauca eta Santander departamentuetatik zetozen. Hamarkada honetako ACNUR-ekobulegoko erregistroetan, Ekuadorren, Mexikon, Erresuma Batuan eta Europako zenbait herrialdeetan babestu gisa dauden pertsonak agertzen dira, nahiz eta ehunekoak txikia izaten jarraitzen duen.
 - 6 1977ko Geldialdi Zibikotik ia urtebete igaro ondoren, setio-egoeran, Turbay presidentek 1978ko irailaren 6ko 1923 Dekretua eman zuen, Segurtasun Nazionalerako Estatutua izenekoa. Estatutuak aukera eta autonomia handia eman zien Indar Militarrei erakunde sozial eta politikoak jazartzeko, eta horrek UNOko kide eta jarraitzaileen aurkako jazarpen sistematikoa eragin zuen.
 - 7 Biktimen Unitateak 18.208 biktima izan ditu atzerrian, eta denboraldi horretan bizitako indarkeriak kontatzen dituzte, erbesteko RUV osoaren % 71,8, batez ere Ekuadorren (4.144), Venezuelan (3.242), Kanadan (2.878), Espainian (2.110) eta Estatu Batuetan (2.038). ACNUR-eko datuetan mugako herrialdeak nabarmentzen dira, hala nola Ekuador eta Venezuela; Ekuadorrek 2007an 265.000 asilo-eskatzaile inguru erregistratu zituen, eta Venezuelak adierazi zuen urte berean 200.000 kolonbiarrek baino gehiagok zeharkatu zutela muga.

JEPekin ikerketetan parte hartu duten armadako kideen historiak jaso dira, baita 2021eko maiatzean mobilizazio sozialetan parte hartu zuten gazteen historiak ere.

6. Erbestearen arrazoiak, ereduak eta testuinguru esplikatzaileak. Askotarikoak dira pertsonak erbesteratu behar izateko izandako arrazoiak eta gertaerak, atera aurretik hainbat indarkeria motaren biktima izan zirelako. Barneko lekualdatze behartua da aldez aurreko giza eskubideen urraketa nagusia; ondoren, bizitzaren, familien eta komunitateen aurkako mehatxuak daude. Hala ere, beste bortxaketa batzuk ere egin dira, hala nola exekuzioak eta hilketak, bortxazko desagerpenak, errekrutatzea, bahiketa edo sexu-indarkeria. Giza Eskubideen eta Nazioarteko Eskubide Humanitarioen ia bortxaketa guztiak, eta herrialdearen garai eta leku desberdinetan gertatutakoak, erbestetik azter daitezke. Erbesteak dakarren ikusezintasun horrek Kolonbiako hainbat historia erakusten baititu, erbestetik berreraiki beharrekoak.

Erbestearen kausa nagusien zazpi (7) eredu zehazten dira, eta askotan elkarrekin erlazionatzen dira. Arrazoi horiek ez dira soilik ihesaren gertaera erabakigarriari buruzkoak, baizik eta indarkeria motari eta eragindako sufrimenduari buruzkoak, bai eta irteera behartu hori zehazten duten faktoreei buruzkoak ere. Erbesteko esperientzietatik kanpo egon direnentzat, hau da erbestea eragin duten arrazoiak eta egoerak ezagutzeko aukera; erbesteratu zutenentzat, gertatutakoa argitzeko aukera da, eta erbesteak beren bizitza, familia eta komunitateentzat ekarri duenaren bidegabekeria aitortua ikustekoa. Arrazoi horietako lehenengoa da *oposiziogile politikoek, gizarte-erakundeek, sindikatuek eta gizarte-liderrek jasandako jazarpena*. Oposiziogile politikoak –alderdi eta mugimendu politikoetako militanteak, ezkertiarak edo gobernuen aurkakoak–, baina baita atxikipen politikorik ez duten pertsonen multzo zabala ere: giza eskubideen defendatzaileak, nekazari-liderrak, afro-ondorengoak eta indigenak, emakumeak, LGBTIQ+ populazioa, ingurumenaren defendatzaileak, sindikalistak eta akademikoak, besteak beste, beren jarreragatik edo Estatuarekiko harremanagatik indarkeria espezifikoak jasan dutenak.

Bigarren arrazoia lurralde-kontrola eta biztanleria zibilaren aurkako indarkeria soziopolitiko orokortua da, zeinak batez ere komunitate etnikoei, nekazariei eta udalerrri-buru zein hirietako hainbat pertsonari eragin baitzien: merkatariak, enpresaburuak, osasun-langileak, ikasleak, herrialdeko gatazkaren hedapenaren eta hazkundearen biktima guztiak. Indarkeria horren larriagotzearen ondorioz, *hirugarren eta laugarren kausetan, gerrarako haurrak eta gazteak errekrutatzea ageri da*, eta armatuen jomugatik irteteko prebentzio eta askapen estrategiak, horien artean erbesteak; eta bahiketa eta estortsioa, batez ere ondare nabarmena duten pertsonen kasuan (enpresaburuak, finken jabeak edo abeltzainak), baina baita baliabide ekonomiko apalak zituzten jende asko ere. *Bosgarren kausak Estatuaren babesik eza zehazten du, herritarren eskubideak eta segurtasuna prebenitu, ikertu, zebatu, erreparatu eta bermatzeko duen betebeharrean, bai eta barruko gatazka armatuaren esparruan indarkeriazko gertaeren aurrean duen erantzukizunean ere*. *Seigarrenak soldadu obien, sinatzaileen eta senideen jazarpena aztertzen du, bake-postakordioen eta -negoziazioen testuinguruan*; horiek ere herrialdeetik atera behar izan dute babeserako bermeak bilatzeko. Eta, azkenik, *zazpigarrenak* biktimen senideen aurkako jazarpenak eta mehatxuak deskribatzen ditu, egia eta justizia bilatzeko prozesuan jazarri izan direnak, eta askok zigorgabetasunaren eta ahanzturaren aurkako borrokan jarraitu behar izan dute erbestetik.

7. Erantzukizunak argitzeko edo izendatzeko beharra eta erruaren alderantzikatzea. Kolonbiako erbestean, gerran parte hartzen duten eragile armatu guztien zuzeneko erantzukizunak daude: talde

paramilitarrak, gerrillak, Indar Militarrak eta Polizia. Era berean, erantzukizuna dute Estatu eragile eta erakundeek eta zenbait politikari eta enpresaburuk, ekintzagatik edo omisioagatik, herrialdeak behartua irtetea eragin duten gertaeretan eta jazarpen-modalitateetan. Hala ere, zenbait testigantzak erakusten dute erantzukizun espezifikoagoak argitu behar direla, ezjakintasunagatik eta erbesteratuek birbiktimitatuak izateko duten beldurragatik.

Gertaeren narrazioan, arduradunei buruzko informazio askotarikoa eta konplexua dago, kontuan hartu gabe haien egiturei edo barne-erakundeei buruzko xehetasunak. Erbestean egindako elkarrizketetako datuen arabera, elkarrizketatutako pertsona gehienek ez dituzte ezagutzen erbesteratu zituzten indarkeriazko gertakarien arduradunak (% 41). Talde armatuak identifikatu zituzten pertsonen artean, oro har, talde arduradun bat edo bi aipatzen dituzte (% 9,4). Talde aipatuak hauek dira: paramilitarrak (% 25); gerrillak (% 14,4); indar publikoa (% 5,2) –Indar Militarrak eta Polizia–; Estatuaren beste agente batzuk (% 1.1) –DAS, Sijin, B2, F2...–; eta talde armatuak, besteak beste, desmobilizazio osteko talde paramilitarrek osatutako talde kriminalak (% 3,1). Gainerako % 0,7a hirugarren zibilei eta beste eragile batzuei dagokie.

Kasu batzuetan, erbesteratu diren pertsonak Estatu agenteak eta erakundeak, tokiko administrazio-agintariak, agintari nazionalak eta justiziako langileak ere aipatzen dituzte, eta erantzukizuna leporatzen diete. Gertaera batzuetan, biktimek erantzule indibiduala aipatzen dute, baina, oro har, ez dago erreferentziarik justiziara iristeko aurrerapauso garrantzitsuei buruz edota aurkeztutako salaketan gaineko ikerketen egoerari buruz. Elkarrizketen % 9,4an agerian geratu da, halaber, talde armatuen, Estatu tokiko eta eskualdeko agintarien, eragile judizialen eta eragile ekonomikoen –hirugarren zibil deritzenen– arteko adostasuna, erbestera behartzen duten ekintzetan eta jazarpen-estrategietan.

Hala ere, garrantzitsua da adieraztea biktima askok, beren testigantza bortxaketak deskribatzera bideratzen duten arren, ez dituztela erantzuleak identifikatzen edo izendatzen; izan beldurragatik edo ezjakintasunagatik, edo zenbait gertaera jasan zituztelako –batzuetan autore bat baino gehiagoren eskutik– eta, bereziki, indarkeria orokorreko testuinguru horietan. Baita gatazkak gainezka egiteak talde armatuen ekintzak mugetatik harago bultzatu dituelako ere. Horregatik, autorei buruzko aipamenak gutxi dira, eta, kasu askotan, jendea beldur da birbiktimitatutako ote duten. Hala ere, erbesteratutako pertsonak bere egoeraren errua bere buruari egozteko joera du, bera izango balitz bezala bere galeren erantzulea, bere bizitza erbesteratuta defendatu behar izan duelako.

8. Erbestea justiziaren aldeko borrokan oztopo gisa, aitortza beharrekin. Erbestea, biktima gehien iritzi, oztopo bat da prozesuen jarraipena egiteko eta justizia eskuratzeko eskubide eraginkorra izateko. Informazioa eskuratzeko eta abokatuak izateko zailtasun edo ezintasunaz gain, gertaeren eta erbestearen beraren eragin traumatikoak salaketan jarraipena egiteko aukera kentzen du praktikan, eta, horrenbestez, zigorgabetasuna indartzen duen faktorea da. Gortearen eta Batzorde Interamerikarraren aurreko zenbait kasutan biktimen erbestea sartzen da. Gainera, hiru epai eman dituzte erbesteari eta Estatuaren erantzukizunari buruz, besteak beste, Estatu Kontseiluaren epai bat, 2021eko martxoaren 17an emanikoa. Bertan, erbestea onartzeaz gain, «barne-erbestea» ere aztertu zuen, hau da, herrialdean geratu ziren familiarakoengan izan zuen eragina, erbesteratu behar izan zuen fiskal baten senideei aitortza eta erreparazioa eskaintzeko. Kasu horretan, epaileak frogatutzat eman zuen kalte bat, eragin desberdina izan zuena erbesteratutako hiru pertsonengan eta Kolonbian geratu ziren haien gune afektibo hurbilena osatzen zutenengan. Epaiak onartu zuen doktrinak eta Egia Argitzeko, Bizikidetzarako eta Errepublikan Ez Izateko Batzordeak (CEV, gaztelaniazko siglen

arabera) barne-erbestea deritzena jasan zutela. Kasu horretan, Kolonbian harrapatuta geratu ziren, eta osatu gabeko bizitza bizitzen, maite zituztenek ihes egin behar izan zutelako⁸.

9. Irteera prozesu behartu, luze, traumatiko eta arriskutsua da. Gatazka armatuaren ondorioz herrialdetik irtetea zer den pentsatzen denean, galdera hauek sortzen dira: nola egingo dugu? Norantz goaz? Zer daramagu? Irteerak haustura-uneak dira, eta ibilbide horiek biktimen eta bizirik atera direnen bizitzaren zati dira. Erbestea ez da bi puntu geografikoren arteko ibilbidea bakarrik –bata irteerakoa eta bestea helmugakoa, bata haustura bat gauzatzen duena eta bestea berreraikuntza bat hasten duena–; aitzitik, ibilbide zailak dakartza, batzuetan arriskutsuak, non zailtasun praktikoak, segurtasunik eza eta urradura emozionalak aurrez aurre jartzen baitira. Gatazkaren dinamika bera dela eta, erbesteratu aurretik, biktimek eta haien familiek hainbat barne-lekualdatze izaten dituzte. Erbesteko errealitatea hasten da pertsonak, maleta egin edo eramán ditzaketan gauza gutxi batzuk hartu aurretik, herrialdean geratzeko beste aukerarik ez dagoela ikusten dutenean. Biktima batzuek egun batetik bestera joan behar izan zuten; beste batzuek, berriz, hilabeteak edo urteak eman behar izan zituzten aukerak aztertzen, Kolonbian beren bizitzari eutsi eta jarraitu edo herrialdetik irten, arriskua gutxitzeko eta lasaitasuna aurkitzeko. Hor daude, halaber, enbaxadekin kudeaketak egin zituztenak eta hainbat elkarrizketa egin behar izan zituztenak irten aurretikbitartean, konponbideen zain bizi izan ziren, familietatik urrun, askotan besteen etxeetan ezkutatu. Eta babes programa baten, giza eskubideen erakundeen edo atzerriko gobernu baten laguntza jaso zutenak.

Bogota da irteera-leku gisa gehien aipatzen den hiria. Hala ere, hiriburura Valle del Cauca, Antioquian, Nariñon eta Santander Iparraldean zeharkaldiak egin dituzten pertsonak iristen dira, eta, proportzio txikiagoan, beste departamentu batzuetatik, hala nola Santander, Risaralda, Atlantikoa, Cauca, Caldas, Santander Iparraldea, Putumayo eta Huila; mugak dira erbesterako igarobide nagusiak.

Irteera behartuari ekiten dionak ziurgabetasunari aurre egin behar dio, irteerak zer espero den jakin gabe egiten baitira gehienetan, eta laino bat sortzen da hartu beharreko erabakietan. Historia bakoitzak bere ibilbidea du: hegazkin bat edo ontzi bat har daiteke, autobus batera igo, ontzi-aldaketak egin edo muga oinez zeharkatu, baina, hortik aparte, babesgabetasunak, mehatxuek, ziurgabetasunak eta beldurrak lotzen dituzte zeharbideak. Batzuetan, pertsonak bakarrik edo familiakoren batek lagunduta ateratzen dira, baina mugaz gaindiko lekualdatze masiboak ere izaten dira, batez ere komunitate etnikoenak eta nekazarienak, gatazka areagotu zen garaietan: irteteko mehatxuak, fumigazioak edo sarraskiak. Guztientzat, oro har, erbestea bakardade-unea da.

10. Babes premia eta aitortza motak. Biktimek herrialdetik ateratzeko jasan zuten babesik eza modu berrietan luzatzen da helmugako herrialdeetan, nahiz eta harrera horren baldintzak aldatu egin diren denboran eta Estatuak eskubide hori bermatzeko duten gaitasunean. Hala ere, nabarmendu behar da Batzordeak entzundako testigantza guztietan harrerako herrialdeekiko eskersaria eta aitortza aipatzen direla; izan ere, Armandok, Espainian bizi den mediku eta giza eskubideen defendatzaile batek adierazi bezala, «erbestera jotzeak bizitzeko aukera eman zidan, eta bizia salbatu izana ez da gutxi»⁹. Beste herrialde batean sartzeko eta bertan egoteko eskubideak milaka pertsonaren bizia salbatu du, zalantzarik gabe, eta haien harrera Estatuaren ekarpena da, beren

8 Montaña Plata, 050012331000200102641 01(44198) epaia.

9 111-VI-00003 elkarrizketa. Medikua, giza eskubideen defendatzailea, atxiloketa arbitrarioaren, jazarpenaren eta mehatxuen biktima. Espainian erbesteratua 2001ean.

konpromiso eta borondate politikoan, ihes egin behar izan zuten Kolonbiako gatazka armatuko biktimen giza eskubideak bermatzeko. Hala ere, nahiz eta ia Estatu guztiek arau aurrerakoiak sartu dituzten, gero eta handiagoak diren oztopoak ere badaude –neurri batean, munduko indarkeria- eta desberdintasun-egoerak errefuxiatu-mugimendu eta migrazio behartuen mugimendu handiagoak eragin dituelako azken bi hamarkadetan–, eta, horren ondorioz, nazioarteko babes giza eskubidea da. Eskubide hori, gizarte eskubideen esparruko hainbat erakundek honela definitzen duten: «krisian dagoen eskubide bat» edo «beheraldian dagoen eskubide bat» bezala definitzen dute. Gertaera horren larritasunaren mende ez ezik, gero eta murriztaileagoak diren herrialdeen harrera- edo bazterketa-politiken mende ere badago aitortza. Kolonbiatik ateratzen diren herritarraek euste-neurriekin egiten dute topo mugetan, bai eta Kolonbian bake-prozesua ezartzeari buruzko errealitatea ezagutzen ez duten irakurketekin ere, babes-aukerak mugatzen dituztenak; beraz, garrantzitsua da behar horiek ikusaraztea. Ikusezintasuna iraunkortasuna indartzeko faktorea izan da, izan ere, erbesteko normaltasun ikusezinak ez du zilegitasun krisia ekarri, baizik eta inguruabarren ondoriozko saihetsezintasun moduko zerbait. Tamainaz handia izan arren, erbestearen eraginak ez zituen baldintzatu Kolonbiarekiko nazioarteko harremanak, beste kasu batzuetan bezala.

11. Herrialde hartzaileetako onarpen-prozesu zailak. Herrialde batzuek babes beharrean dauden kolonbiarrekin elkartasun handia erakutsi dute. Nazioarteko erakundeek ere, ACNURek esaterako, Kolonbian gertatutako, lekualdatze behartu eta erbestearekiko kezka garrantzitsutzat jo dute. Hala ere, baldintzek, prozesuen garaiek, migrazio-eragile batzuek gatazkaren berri ez izateak eta mugak gogortu eta segurtatzeak, ziurgabetasun eta zaugarritasun handiko egoeran egotea ekarri dute, migrazio-egoera urtez urte konpondu gabe eta behar duten arreta eta babes jaso gabe. Emakume errefuxiatu batek Kanadan esan zuen bezala: “Asiloa eskatzea bestea konbentzitzea da, zure egia merezi duela sinetsaraztea”, eta kasu askotan “behar bezain biktima” ez dela uste izatea. Kolonbiarren aurrean, harrera-gizarteetako aurreiritziak ere erabakigarriak dira; askotan, narkotrafikoko, sexu-laneko edo bestelako estigmek baldintzatzen dituzte, baita arrazakeria, xenofobia eta bestelako diskriminazio-motak. Álvaro Uribe Vélez presidente zela (2002-2010), gatazka armatuaren existentzia ukatu izanak eta hura sistema demokratikoaren aurkako ekintza terrorista-multzo batera murriztu izanak, ondorio izugarriak izan zituen, garai horretan, biktimen babeserako eskubidearen eta giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren aurkako bortxaketa larriak aitortzeko. Zenbait herrialdetan, Kolonbiako errefuxiatuen onarpena, giza eskubideen edo errefuxiatuen politikek ez ezik, Kolonbiako gobernuetikiko harremanek ere zehaztu dute.

Egiaren Batzordeak premia humanitariotzat hartzen du nazioarteko babes. Horrenbestez, Kolonbiako bakearekiko konpromisoa eta elkartasuna da, halaber, Estatuak eta nazioarteko komunitateak herrialdetik ihes egiten duten pertsonen babes bermatzea, gatazka armatuak eta gatazkako eragile berriek eta zaharrek posizio berriak hartzeak eragindako indarkeria-dinamikek aurrera egiten dutelako, Estatuaren arteko harreman eta interes politiko eta ekonomikoak alde batera utzita. Erbestea aitortzea ez da bakearen aurkakoa, hura lortzeko laguntza baizik.

12. Arriskua arintzen duten nazioarteko babeserako aldi baterako programak. Gatazka armatuaren biktima askok aldi baterako babes-programetan aurkitu zuten arrisku-egoerak arintzeko bidea (bereziki, arriskua oso handia, eta irtetea premiazkoa zen kasuetan). Programa horiek mendeko lehen hamarkadaren hasieran sortu ziren, arrisku handian ziren sindikalistei eta giza eskubideen defendatzaileei premiazko babes emateko alternatiba bat eskaini behar zitzaielako, Estatuak babes-

eginbearra betetzen ez zuelako. Beste kasu batzuetan, Kolonbiako giza eskubideen erakundeen eta sindikatuen laguntza-sareek bideratu dute irtetea, eta munduko hainbat herrialdetako babes-programetarako sarbidea erraztu ere.

13. Erbesteak berekin dakar bizi-haustura, deserrotze izugarria eta bizi-baldintzen okerragotzea, aurreko estatus-maila edozein izanda ere. “Ez-leku” bat da munduan, eta “ez-denbora” bat, non pertsonak eta haien familiak berriro errautsetatik hasi behar duten Iragakortasun-egoera iraunkorra, linbo bat non itzuli ezin diren eta baldintza eskasetan herrialde berri batean sartu behar duten. Aberria galtzeak zalantzan jartzen ditu norberaren eskubideak eta herritartasuna. Laneratzea askoz ere baldintza txarragoetan egiten da, lan informal eta prekarioetan. Haustura-, deserrotze- eta abandonu-sentimendua nagusitzen da, nahiz eta orokorrean segurtasun-baldintza hobeak izan. Hizkuntzaren oztipoek, kultura-kode ezezagunek, atzeritarrekiko diskriminazioak, marjinalizazioak eta herrialde berrira egokitzeko beharrak eragina dute. Prozesu horiek oso luzeak dira denboran, eta ez dira irten osteko lehen edo bigarren urtean soilik gertatzen.

14. Erbestearen esperientziak, gainera, kalte emozional eta fisiko garrantzitsuak eragiten ditu. Halako gertaeren eraginak, nola bortxazko irteerak berak, ihesaren arriskuak, helmugako herrialdeko prekaritateak, aitortza- edo estatus-beharrak eta beste herrialde bateko integrazio-beharrak denboran zehar mantentzen diren estres-maila handiak eragiten dituzte. Oso ohikoak dira izoztutako dueluak, larritasuna eta ondoez emozionala urtez urte mantentzea. Erbesteak berekin dakar norberaren bizitzaren kontrolik ez izatea eta besteen mende egotea. Etengabeko beldurra dago jazarpenari edo indarkeria berriekiko zaugarriak izateari, bereziki mugako testuinguruetan. Hori dela eta, pertsona batzuk isildu edo ikusezin bihurtzea bilatzen dute, mehatxuen aurrean oharkabean pasatzeko. Errudun-sentimendua ere nabaria da, beldurra sentitu eta herrialdetik atera izateagatik, beste batzuk hori egiterik izan ez badute edo hil badira. Erbesteratu diren pertsonen osasun fisiko eta mentalari eragiten dioten kalteen kontakizunak ugariak dira.

15. Eraginak are ikusezinagoak dira bigarren eta hirugarren belaunaldietan. Erbestearen eraginak luzatu egiten dira eta bigarren belaunaldiei eragiten diete. Batzuek indarkeria zuzenean sentitzen dute, eta beste batzuek gurasoekin atera behar izaten dute herrialdetik, horren arrazoiak ulertu gabe. Familia askotan, irteeraren eta inpaktuen inguruko isiltasuna agertzen da, eta horrek gurasoen eta seme-alaben arteko eten bat eragiten du. Eten hori kultura-eraldaketekin eta hizkuntza-oztupoekin sakontzen da. Identitate baten eraikuntza, hemengo eta hango dimentsio transkultural horrek baldintzatua. Nahiz eta erbesteratuen seme-alabak eta bilobak ez diren estatistiketan eta erregistroetan jasotzen, harrera-herrialdeetako herritarrak baitira, indarkeriaren ondorioek eta familien minen proiektzioak eragina dute beraien gain. Beste herrialde batean jaio zirenentzat, beren nortasuna eraikitzea, binazionala edo harrera-herrialdearekin parekatutakoa, Kolonbiarekin eta bertan geratu zirenekin loturak berrezartzea ahalbidetuko duen egitiaz iragaten da. Hala ere, aldaketa horiek guztiek bizi izandakoari buruz hitz egiteko eta haien bizipenak ulertzeko aukera eskatzen dute.

16. Barne-erbestea eta familia-eraginak. Barne-erbestea jatorrizko herrialdean ezlekuaren, isiltzearen, ezkutatzaren eta itxieraren/desterruaren bizipen atsekabegarriari dagokio. Beren konpromisoaren eta eginkizun politiko eta sozialaren ondorio mingarri eta gaizki ulertuaren ondorioz erbestera alde egin behar izan zutenen seme-alabek sufritzen dute. Zaintzaileei, amonei, izebei eta gainerako senideei ere eragiten die; izan ere, horiek zatitxoak berregiten dituzte eta beren kargu geratzen

direnei bizitza duina eta maitasunezkoa ematen saiatzen dira¹⁰. Baina eragina familia-genetik harago hedatzen da, eta alderdi politikoetako eta gizarte-erakundeetako eledunak hartzen ditu barne, bai eta parte-hartze politikorako eta ideiak, giza eskubideak eta lurraldeak defendatzeko gizarte-liderrorako eskubideak urratzen dizkieten plataformak eta taldeak ere.

Erbestea eta barne-erbestea aldi bereko fenomenoak dira. Kolonbiar askorentzat errealitatea da, gerraren testuinguruan herrialdetik alde egin behar izan baitute, sustraiak, lurra, jendea, loturak eta bizitza-proiektuak atzean utzita. Hainbat hamarkadatan, Kolonbiako erbestea fenomeno ezezaguna izan zen, isildua eta giza eskubideen aurkako beste bortxaketa larri batzuekin edo giza migrazioaren eta mugikortasunaren beste kategoria batzuekin nahastua. Azken hamarkadetan bakarrik, salaketa-lan ikaragarriari eta kolonbiarrek atzerrian duten eraginari esker, eta Batzordearen lanari berari esker, fenomeno horrek lekua hartu du kontakizun nazionalan.

17. Kalteak prozesu kolektiboetan. Kasu askotan, egia adierazten ari ziren edo arduradunen helburuak lortzeko oztopo ziren pertsonak isilarazteko edo bide horretatik ateratzeko modu bat da erbestea. Ildo horretatik, geldiarazte eta inhibitze sozialera bideratutako indarkeriaren asmo baten ondorioa dela ere uler daiteke, besteak beste, prozesu politiko, sozial eta zibikoak ahultzen baititu, lurraldea eta emakumeen eskubideen defentsari zuzendutakoak, besteak beste. Lidergoei eta antolakuntza-prozesuei egindako erasoak esperientzia horiek blokeatu eta jendeak beren eskubideen alde borroka egiteari uzten saiatzen dira.

Bizitza eta osotasun pertsonala etengabe mehatxupean izatearen ondorioz, milaka gizarte-erakunde erabat desegin ziren herrialdeko hainbat tokitan. Erakunde handiagoek, babesteko, jarduteko modu asko aldatu behar izan zituzten, profila eta salaketak murriztuta. Gizarte-lana egiten duten erakundeetako buruei egindako erasoek, barne-lekualdatzea, hilketa edo erbestea direla ere, galera kolektiboa dakarte. Egiten ez denaren ondorioak, ateratzeak besteengan duen eraginak, lidergo batzuen zurtasun-sentimenduak edo eraso horien ondoren segurtasun-baldintzen okertzeak, horiek guztiek eragiten dute erbestea gerraren ezaugarri den gizarte-ehunaren kontrol-historia horren zatitza hartu behar izatea, baita giza eskubideen urraketa horiek egiten dituztenen asmoaren zatitza ere.

18. Eraginak demokrazian eta zuzenbidezko estatu sozialean. Erbestearen dimentsio kolektiboa kolpe gogorra da Kolonbiako demokraziarentzat. Garai batzuetan, herrialdean politikan aritzea arrisku handiko lanbide bihurtu zen, eta, horren aurrean, isiltasuna eta/edo erbestea zen kaltetuentzako alternatiba bakarra; UP-ren (gaztelaniazko siglen arabera) eta beste mugimendu politiko batzuen kasuan, adibidez. Bizitza politikotik kanporatze armatua erbestearen zauri sendoetako bat da. Erbestearekin, gizarte-ehunaren taxutzaila diren komunitate-proiektuak zapuzten dira. Lider askoren komunitate-lana, landa-eremuetan edo auzoetan izandako antolakuntza-esperientzia asko eta gatazka armatuaren indarkeriari buruzko ikerketa asko eten egin ziren. Halaber, erakunde sozialen eta oposiziogile politikoen parte-hartze politikoa ahuldu eta murriztu egin zen. Hainbat buruzagi politiko herrialdetik ateratzean, alderdi politikoak edo desagertu egin ziren, eta horrek nazio-mailako eztabaida eta arlo publikoaren ekarpena galtzea ekarri zuen. Horrenbestez, joko politikoaren pluraltasunetik kanpo geratzen dira ezkerreko mugimenduak, ingurumenaren aldezkak, sindikalistak, nekazariak, lurraldearen defentsa, eskubide etnikoen defentsa, besteak beste.

10 Vázquez Sepúlveda, «Irse sin partir», 11.

Kolonbiako demokraziaren aurkako beste kolpe handi bat errefuxiatutako kolonbiar gehienek hauteskundeetan, kontsultetan eta bizitza politikoko gainerako gaietan kanpotik parte hartzeko duten ezintasuna da. Murrizketa horrek, Kolonbiako Estatuak parte hartzeko baldintzarik ez izateagatik eta asilo-programa batzuegatik ezarriak, eragozten du kontsulatuera hurbiltzea han aurreratzen diren prozesuetarako, hala nola kanpotik egindako bozketetarako. Askorentzat, horrek erbestea heriotza politiko gisa bizitzea eragiten du. Subjektuaren dimentsio politikoaren kalterako da, ezin baitu parte hartu interes nazionaleko eztabaidetan eta bere bizitzan eta ongizate kolektiboan eragina duten erabakietan.

19. Erbestea eta eragina justizian. Egiaren Batzordeak CTI-ko (gaztelaniazko siglen arabera) epaile-, fiskal-, prokuradore- eta agente-talde handi bat elkarrizketatu zuen, guztiak ere justizia bilatu eta lana zuzen eta duintasunez egiteagatik ordaintzera behartuak. Gatazka armatuaren erdian, haiek eta haien familiak mehatxatu egin zituzten, edota erbestera eraman, hil ez zituztenean. Hala ere, ez Fiskaltzak ez agintari judizialek ez dute giza eskubideen urraketek kaltetutako funtzionarioen kopuruaren erregistrorik, barne-gatazka armatuari dagokionez egiten duten lanaren testuinguruan. Funtzionario horien jazarpenaren ondorioz, Estatuak justizian zituen gaitasunak eta konpromisoa galdu ziren, eta hainbat prozesu, ikerketa eta epaien betearazpenak eten egin ziren. Horrek, era berean, erabateko zigorgabetasun-egoera indartu zuen gatazka armatuarekin zerikusia zuten kasuetan. Horrez gain, justiziari eraso egiteak eta zenbait kidek gizartean zuten garrantziak abandonu- eta babesgabetasun-esperientzia bat ekarri zuten erakunde- eta gizarte-sektore zabalentzat, hain zuzen ere justiziarekin eta zuzenbidezko Estatu indartzearekin konprometituta zeudenen artean.

Justizian eta eskubideen defentsan jardun dutenen inplikazio pertsonalez gain, funtzionario judizialen jazarpenak, mehatxuek eta erbestek ondorio larriak izan zituen prozesu judizialak ebazteko edo epaiak betearazteko ezintasunean. Kasu batzuetan, mehatxuak eta indarkeria legetik kanpoko talde armatuetatik etorri ziren, beste batzuetan Estatuako beste erakunde edo agente batzuetatik, eta, bestetan justizia erakunde beretik zetozen.

20. Genero-begirada bat erbestetik. Batzordeak beste herrialde batzuetan elkarrizketatutako pertsonen % 48,8 emakumeak dira. Haien testigantzek, bai eta LGTBIQ+ taldeko pertsonenak ere, erbestearen eragin bereizietan eragiten duen indarkeria-*continuum*a erakusten dute. Eragin diferentzialez ari gara, emakumeek gizartean bizi dituzten marjinazio- eta mendekotasun-baldintzak ez ezik, estereotipo sexisten eragina ere kontuan hartuz. Emakumeen aurkako indarkeria, maiz, ikusezin bihurtu da, eta ez dira kontuan hartu gerraren eta erbestearen eragin espezifikoak, testuinguru nabarmen patriarkalean. Emakumeek beren bizitzetan bazterketa eta indarkeria arriskua bizi izan dute, eta gatazka armatuan eragin fisiko, psikologiko eta sexual ugari jasan dituzte. Emakumeak hainbat arrisku eta abusu-moduren mende egoten dira mugako pasabideetan, eta migrazio-prozesuen baldintzek zaugarriago bihurtzen dituzte atzerriko herrialdeetara iristean, bereziki bakarrik daudenean. Birbiktimizazioa, onespelik eza eta erasoak jasandako indarkeria multzoari gehitzen zaizkio.

LGTBIQ+ kolektiboko pertsonen, bestalde, Kolonbian ez zuten segurtasuna eta babesa bilatu zuten erbestean, baina, era berean, testuinguru egokiagoa beren bizitzarako, diren eta izan nahi duten bezala bizitzeko, aurreiritzirik, diskriminaziorik eta beren bizitzarekiko mehatxurik gabe. Hala ere, zaugarritasun- eta arrisku-egoeretan ere aurkitu dira –batez ere irteeran, mugako pasaguneetan eta migrazio-prozesuetan–, eta egoera horietan askotan aurre egin behar izan diete diskriminazioari,

hitzeko abusuei eta abusu fisikoei. Beren izaeragatik eta mehatxuen eta barne-gatazka armatuaren arteko ustezko lotura urriagatik, kasu askotan, babes gabezia jasan dute asiloa eskatzeko prozesuetan. Agintarien tratua, ulermen falta eta genero-estereotipoak dira bizipen horien osagai.

21. Erbestearen eragina komunitate etnikoetan. Erbesteak komunitate etnikoetan duen eragina beste kasu batzuetan baino konplexuagoa da: erbestea edo deserrotzea ekar dezake. Antzinako lurraldearen, komunitatearen, lurraren, kultur eraginaren eta naturarekiko loturaren inguruan eraikitzen den harreman sakon eta bereziari zor zaio hori. Antzinako lurraldean sozializatzeak ahalbidetzen du, alde batetik, jatorrizko hizkuntzen erabilera indartzea, eta, bestetik, mediku tradizionalekin komunikatzea, horiek komunitatearen zainketa espiritualala egiten baitute. Beraz, lurraldeak galtzea kultur kalte konponezina da. Lurraldearekiko loturak hausteak bizimoduaren, kulturaren eta espiritualtasunaren funtsezko alderdi baten haustura dakar. Lurraldetik ateratzean, bizimoduak ere aldatu egin behar dira, landa-inguruneetatik hirietara edo hiriguneetara. Hori bereziki zaila da ezagutza belaunaldiz belaunaldi transmititzen denean eta, besteak beste, nekazaritzarekin, arrantzarekin edo artisau-lanekin lotutako praktiketan oinarritzen denean. Arazo horrek herri binazionaltan ere eragiten du, non mugak artifizialak baitira, eta egoeren ikusezintasunak zaurgarritasun handiagoa baitakar, eta, ondorioz, hainbat garaitan, mugaz gaindiko lekualdatzeak gertatzen dira beren lurraldearen beraren barruan.

22. Galera neurtezina eta ezinbesteko ekarpena. Kolonbian, askotariko erakunde, plataforma, sindikatu, gremio eta prozesu komunitarioek eragin handia nozitu zuten erbestera atera behar izan zuten buruzagien eta kideen galeraren ondorioz. Horrekin, galera hori demokraziarentzat ere bada, herriak giza kapital oso baliotsua galdu baitzuen; esperientzia ikaragarri handi bat joan zen erbesteratu ziren buruzagi eta lider sindikalen, sozialen edo politikoen atzetik, baita epaile, nekazari, irakasle, ikasle, indigena, lider afro-ondorengo, kazetari, merkatari edo enpresaburuaren atzetik ere.

Pertsona erbesteratu askok parte hartzeko eta mobilizazio sozialerako guneak integratu dituzte Kolonbiako gatazka armatuaren ikusgarritasunaren inguruan, harrera-herrialdeetatik bizikidetzarako eta bakerako egindako ekintza kolektiboaren inguruan, eta Egiaren, Justiziaren eta Erreparazioaren Sistemako erakundeei kanpotik egindako ekarpenen inguruan. Beste batzuek ere beren bizitzak berreraikitze modu berriak bilatu dituzte itzuleran, baina parte hartu zuten eremu kolektiboak, bultzatu eta gidatu zituztenak, ez dira berdinak, eta kasu batzuetan ez dira existitzen. Beste pertsona batzuk urte batzuk geroago itzuli dira, beren ezegonkortasuna jasanezina zelako. Itzuli direnak, gehienetan, Estatuaren sostengu baldintzarik gabe itzuli dira, horiek bilduko dituen politika espezifikorik gabe eta birgizarteratzeko behar adinako bermerik gabe; itzultze horiek erakusten dute prozesu horien garrantzia, baina baita beraientzako bermeak behar direla ere.

23. Desterruari aurre egiteko moduak. Nork bere burua «birpentsatzea» eta «berreraikitzea» sarri aipatutako hitzak dira, Batzordeak beste herrialde batzuetan erbesteratutako pertsonekin izandako testigantza eta topaketa askotan. Erbestean, pertsonak erresistentzia-formak eta -tresnak aurkitu zituzten, lurraldea edo subjektu politiko gisa leku bat ukatu nahi izan zieten aurrean.

Erbestera alde egin behar izan zuten pertsonak jarrera aktiboa izan dute beren bizitzak berreraikitze, gizarteratzeko, Kolonbiako erbesteratue multzia aktibotzat hartzen da, sortzailatzat

bilaketetan, eta aktibotzat herrialde bakoitzean duen jarreran. (1) Garaitua izaten ez uzteko erabakia (eta behar diren indarrak ateratzea, bilatzea eta aukerak irekitzea); (2) Familia, aurrera jarraitzeko indargune gisa (seme-alabengatik aurrera egitea); (3) Kolonbiako sustraiak zaintzea ohiturak praktikatzuz, hizkuntza erabiliz, eta herrialdean gertatzen denaren berri emanaz. Hala ere, gertaeren eraginari edo bizi izandako esperientzia traumatikoen asimilazioari dagokionez, isiltasuna nagusitu da iraganeko gertaerekiko distantzia mantentzeko eta berriro gertatzenetik babesteko. Kolektiboki, elkarriz laguntzeko moduak bereziki garrantzitsuak dira, loturen haustura dakarren erbestearen testuinguruan: espiritualtasuna, fedea eta erlijioa kongregaziorako, komunitaterako gune gisa, eta azalpenik gabeko gauzatarako azalpenak ematen dituzte. Kolonbiarren edo atzerritarren arteko laguntza- eta elkartasun-sareak eta adierazpenak funtsezkoak izan dira; hala ere, sare horiek askotan ez diete heltzen erbestearen arrazoiei, mesfidantza politikoa dela eta, edo familiarekin edo lagunarteko harreman estuetan bakarrik irauten dute. Kolonbiako erbestea oso aktiboa izan da demokraziaren eta giza eskubideen kausa kanpotik aldeztu, bakearen eta demokraziaren aldeko borrokarekin jarraitzeko. Horregatik, ere jazarpena eta susmoa jasan dute.

Erbesteratu batzuek baliabideak bilatu zituzten harrera-herrietatik antolaketa-, gizarte- eta politikalan jarraipena emateko. Eragile armatuek edo Estatuako agenteek indarkeriaz hondatu eta isilarazi nahi izan zituzten lidergoak berreraikitzea erabaki dute askok. Hala, biktima batzuek beren kasuen zigorgabetasuna agerian uzten eta nazioarteko guneetan edo sareetan gertatutakoa salatzen jarraitu dute; beste batzuk munduko hainbat eskualdetan errefuxiatu, migratzaile eta erbesteratuen plataforma eta kolektiboetan sartu dira; eta batzuek tokiko kontseiluetan parte hartu dute, edo kanpotik eztabaida, gogoeta eta laguntza antolatzeke beste modu batzuetan.

24. Itzultzeko aukera biktimen itxaropenaren parte izan da beti, baina mehatxuen iraupenak, gatazka armatuaren jarraitutasunak eta berme faltak eta itzulerako politikak baldintzatu dute. Praktikan, baldintza politikoak baino gehiago, arrazoi pertsonalek eragin dituzte zenbait itzulera. Bake-prozesuaren itxaropenak, hasieran, itzulerarako baldintza berriak sortu zituen, eta, gero, zapuztu egin dira kasu gehienetan. Gero eta maizago, epe luzeko erbestearen problematikak bizi izandako denbora kontuan hartzeko eskaerak sortzen ditu, pentsioei edo lanari buruzko akordioak eta erbestearen lege- edo kausa-arazoak konpontzea (judizializazio arbitrarioak, jarraipen egokirik gabeko kasuak eta abar), itzultzeko baldintza gisa. Harrera-herrialdeetako testuinguru sozioekonomiko eta politikoetako aldaketek ere behartu dituzte itzulerak. Herrialdeetako krisi ekonomikoak, migrazio-politiketako aldaketak, krisi diplomatikoak eta pandemiaren etorrera bera dira itzultzeko asmoa azkartzen duten arrazoiak. Materialki, itzulitako pertsonak Kolonbian, irten aurretik, eta harrera-herrialdeetan erbesteko esperientzietan izandako *galera material bikoitzean* jasaten duten hirugarren eragina nabari da. Itzuleran, dauden politikek ez dute aukerarik ematen bueltatutakoan ondarea neurri batean berreskuratzeko.

Baina itzultzea ez da atzera etortzea soilik. Itzuleren ibilbideak eta erbesteratuak kanporatu zituen herrialdera itzultzeko prozesuak berezko eragin pertsonal eta kolektiboak ditu. Harrera-herrialdeetako bizipenaren iraupenaren arabera, lurraldeetara iristen direnek geldialdian utzitako identitatea eraikitzeari egin behar diote aurre; arrotz zaien herrialde bat onartzeari (erbesteko seme-alaben eta biloben kasuan); estereotipoek, eskubideak eskuratzeko oztopoek eta herritartasunaren berrasmatzeari erakundeetan, sareetan eta familietan, dimentsio kolektibotik. Itzulera beste lekualdatze bat da ia, lan-arazoak, identitatea eta gizarteratzea aldatu egin den herrialde batera, non jendeak ez baitu onartzen prozesu aktiboa dela eta Estatuaren aldetik laguntza eta politikak behar dituela. Onarpen kolektiboko prozesu bat gabe, pertsona horien integrazioa, gertatzen denean,

ezeگونkorra izango da, eta horrek ere mugatu egingo du eragin positiboa herrialdean. Erbestea arazo masiboa denez, baina ez kolektiboa, bigarren belaunaldientzat ere zailagoa da nortasun binazionalari eustea, eta, aldi berean, herrialdearekin harremanak izatea, bake-prozesuaren ziurgabetasun-testuinguruak eta indarkeriak aurrera egiteak itxaropen positiboak mugatzen baititu. Itzulera, alde egiteaz pentsatzean berehalako helburua zen hura, erabaki urrun bihurtu da, oroimenez gogoratzen duten baina orain bertan bizitzeko baldintzarik eskainiko ez diela beldur diren lurralde bati buruzkoa. Jazarpen-gertaerak, mehatxuak eta bizitzaren aurkako atentatuak erbestearen arrazoi gisa bizi izan zituztenen profilek beldurrak eta larritasunak adierazten dituzte, lurraldeetako indarkeria-egoerak bere horretan dirauela eta Estatuak ez dituela bere eta bere familien osotasuna berreskuratzeko baldintzak bete. Ikusezintasun-, inpaktu- eta aitortza- edo itzulera-arazo horiei guztiei dagokienez, erbestean dagoen jendeak Batzordeak gomendioak ematea espero du.

25. Erbestearen adibide diren kasuak. Ikerketa-prozesuan bederatzi (9) azterketa-kasu lehenetsi ziren argitze aldera, erbesteko esperientziaren pluraltasuna eta konplexutasuna, mugaz gaindiko lekualdatzea eta itzulera adierazten dituztenak. Hauek dira lehenetsitako kasuak:

- 1) Biktimizazio judiziala, Gloria Lara de Echeverri bahitu eta hiltzeagatik;
- 2) DASen gerra zikina Europan, erbestearen jazarpena 2003-2006 bitartean;
- 3) Bellacruz Etxaldeko nekazariak beren egia kontatzen dute erbestetik;
- 4) Antofagasta: kolonbiar Itsaso Barea Txilen, 2000-2010;
- 5) Urabako iparraldeko nekazarien lekualdatze behartua, gabetzea eta erbesteratzea;
- 6) Bari herri indigenaren mugaz gaindiko lekualdatzea eta itzulera;
- 7) Catatumboko nekazarien mugaz gaindiko lekualdatzea eta itzulera;
- 8) Mugaz gaindiko herri etnikoak: Zio Bain (Siona) herri indigena; eta
- 9) Komunitate indigena, afro eta nekazarien mugaz gaindiko lekualdatzeak Kolonbia eta Panama arteko mugan.

Amaierako gomendioak

Erbesteko pertsonen aitortza eta eskubideak

Nire ustez, garrantzi handiko gai bat dago: gu Kolonbiara itzuli abal izateko, erreparazio eraginkorra egin behar da. Baina ez ekonomia kontuetan bakarrik egindako erreparazioa, bizitza-proiektu gisa egindako erreparazioa baizik, nor bere bizitza-proiektura berriro itzul dadila. Baina, halaber, itzulera duina egin dadila ez soilik diskurtso moduan, erbestea berriro birbiktimizatuko ez duten benetako bermearekin baizik.

Jorge Freytter, Espainian erbesteratua¹

Egiaren Batzordeak erbestera –askotan, familietako kide batzuekin batera– atera behar izan zuten bi mila pertsona baino gehiago elkarrizketatu zituen, bai eta adituak, akademikoak, eragile armatuak eta subjektu kolektiboak ere. Horiek izan dira, hain zuzen, Txostenaren kapitulu honen oinarria. Ahots horiek errealitate ezezagun bat kontatzen dute (nahiz eta existitu den, jarraitu duen eta hainbat hamarkadatan eragin sakonak izan dituen). Gatazka armatuarekin zerikusia zuten arrazoiengatik herrialdetik irten behar izan zuten milioi bat pertsona inguru –Egiaren Batzordeak ACNUR-en laguntzarekin egindako azterketaren arabera– aitortzeak erakusten du hori dela herrialdearen bigarren indarkeria, eragindako pertsona-kopuruari dagokionez, lekualdatze behartuaren ondoren. Hala ere, biktimen eta lurren itzulketaren 2011ko legearen esparruan, eta herrialdetik kanpoko biktimekin eta itzultzearekin lotutako beste xedapen batzuetan, ez dago erbestearen arau- eta erakunde-aitortzarik. Txosten honen aurkikuntzek –ekarpen berria dakarte, ez bakarrik Egiaren Batzordeen historian, baizik eta giza eskubideen urraketa horren eta biktimen esperientziaren berri sakonean– agerian uzten dute zer hedadura eta sakontasun duen erbestea, eta zer garrantzi duen Kolonbiatik kanpoko Kolonbia horrekiko loturak berreraikitzeak.

Errefuxiatu, asilo-eskatzaile eta nazioarteko babes-beharrak dituzten biktimak «kanpoko biktima» gisa agertzen dira ia beti araudi nazionalean (irtenarazi zituzten inguruabarrak gatazkarekin lotuta ez baleude bezala, haiek haren inpaktuei aurre egingo ez baliete bezala –erbestea dakartzan ondorioez gain–, eta herrialdetik irteteak eta itzulera berak indarkeria berriak eta beren eskubideen urraketak eragingo ez balitu bezala).

Batzordearen ustez, aitortza-politika bat formulatzeko eta ezartzeko, orain arte eraikitako egia hori eta Kolonbiatik kanpoko Kolonbiak herrialdean bakea eraikitzeke egindako ekarpena integratu behar dira, gerrak, babesik ezak eta desberdintasunak hautsitako gizarte-ehuna berreraikitzeke energia positibo gisa. Ildo horretan, ekintza hauek gomendatzen dira, Batzordearen entzute-lanari esker sistematizatu eta landutakoak; txosten honek hainbat erakunderekin, biktimekin eta gizarte zibileko erakundeekin dituen atzeraelikatze-guneak, 2021eko martxoan; biktimen erakunde eta plataformek eta migrazio

1 001-VI-00001 elkarrizketa. Buruzagi sindikal eta Atlantikoko Unibertsitateko irakasle erail baten semea, bahiketa, tortura, giza hilketa eta mehatxuen biktima. Venezuelan erbesteratu zen 2004an, eta gero Espainian 2006an.

behartuko eta babeseko gaietako adituek Egiaren Batzordearen aurrean aurkeztutako 30etik gora txosten eta dokumentuak; eta hainbat erakundek 2017an aurkeztu eta Batzordearekin partekatua izan zen lege-proiektua². Era berean, Biktimen Nazioarteko Foroak, Revicpaz-Lac-ek (gaztelaniazko siglen arabera) eta beste plataforma eta erakunde laguntzaile batzuek eskaera hori hainbat truke-gunetan erakutsi dute 2017az geroztik.

Erbestearen eta biktimen aitortza Kolonbiako Estatuaren aldetik

Estatuak beharrezko mekanismo juridikoak eman behar ditu erbestea eta mugaz gaindiko lekualdatzea edo babes giza eskubideen urraketa larritzat hartzeko, bai biktimen eta lurren itzulketaren legean (2011ko 1448 Legea), bai Kolonbiako gatazka armatuaren biktimenzako gainerako arauetan. Biktimen legeak kanpoko biktima herrikideak aipatzen ditu, baina ez dago erabateko aitortzarik erbesteari, babesari, mugaz gaindiko lekualdatzeari eta horien ondorioei.

Kolonbiako legearen eta instituzionaltasunaren esparruan ez onartzeak esan nahi du arreta-, laguntza- eta erreparazio-neurriek ez dituztela erbestearen bizipenen eraginak eta kalteak aintzat hartzen, eta sakondu egiten dutela bai erbesteratutako pertsonen bai itzuli diren pertsonen birbiktimizazioa. Beraz, Batzordeak Errepublikako Kongresuari gomendatzen dio biktimei buruzko legearen eta 2011ko 480 Dekretuaren irismena zabaltzea, bai eta lege horretatik zein Kolonbiako gatazka armatuaren biktimenzat xedaturiko gainerako araubideetatik ondorioztatzen diren erakunde publikoen ekintza-protokoloak doitzea ere (Biktimei Laguntza eta Erreparazio Integrala emateko Unitatea –UARIV, gaztelaniaz–; eta Lurren Itzulketa Unitatea). Zabalkuntza horrek erbestea, babes giza eta mugaz gaindiko migrazio behartua barne hartu behar ditu, giza eskubideak eta Kolonbiako konstituzio politikoan jasotako oinarriko eskubideak biktimizatzen eta bortxatzen dituzten ekintza gisa. Gainera, beharrezkoa da «lurraldez kanpotasun» kontzeptua ordenamendu juridiko nazionalean sartzeko, kanpoko biktimei, errefuxiatuei eta erbesteratuei eragiten dieten egiarekin, justiziarekin, erreparazioarekin eta errepikapen ezarekin lotutako puntuak zehaztu eta indartzeko.

2011ko 1448 Legea sakon berrikusi behar da, eta nazioarteko zuzenbidera egokitu (Genevako Konbentzioa, NBERen Batzar Nagusiaren 60/47 Ebazpena), nazioarteko babes giza behar duten pertsonen eskubideei eta asilorako eta babeserako eskubidearen aplikazioari kalterik egin gabe. Bereziki, 3. artikulua idazketa berrikusi behar da, 1984ko Cartagenako Adierazpenak sostengatzen duen errefuxiatu «biktima»-ren definizio zabalduaren aldean atzerapenik ez eragiteko. Era berean, 1448 Legean ezarritako baldintzak bete behar dira, erbesteko gabetzearen biktimek beren lurra eta ondasunak nahierara erabili eta gozatzeko eskubidea erabat gauza dezaten –eta ez soilik formalki–.

Beraz, garrantzitsua da kanpoko biktimatzen hartzea, bakarka edo taldean, zuzenean edo zeharka, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren aurkako arau-hausteengatik edo barne-gatazka armatuan gertatutako giza eskubideen nazioarteko arauen aurkako bortxaketa larri eta agerikoengatik kaltea jasan duten pertsonak, katalogatu edo aitortu diren modua edozein dela ere: errefuxiatuak edo asilo-eskatzailak, babes-beharrak dituztenak edo mugaz gaindiko lekualdatze behartuen biktimak. Emakumeen mugaz gaindiko edo nazioz gaindiko lekualdatze behartua eta horren eragin bereizgarriak sartzeari dagokionez, Batzordeak Konstituzio Gortearen 2008ko 092 Autoa ezartzea eskatzen du.

2 Codhes et al., «Propuesta de articulado».

Aitortza-neurriek, beren ezarpenean, biktimentzat erakundeen «arkitektura» osoa bereganatzera jo behar dute, haien kultura-, pedagogia- eta erakunde-dimentsiotik. Horretarako, honako hau gomendatzen da: 1) Kolonbiako erbestearen ulermen osoa sustatuko duten oroimen- eta aitortza-ekitaldi publikoak egitea, Kolonbiako Oroimen Historikoaren Museoaren bidez³, eta Kolonbiako erbestearen oroimenerako museoak sortzea beste herrialde batzuetan, fenomenoak garrantzi handiagoa izan duen herrialdeetan; 2) Erbestearen, Babesaren eta Migrazio Behartuaren Oroimenerako Funtsa sortzea, Kolonbiako erbesteratuen, errefuxiatuen eta nazioarteko babes-bilatzzaileen esperientzia jasoko duten ekintzak garatzea bermatuko duena. Horretarako, haien duintasuna eta herrialdean bakea eraikitzeke egiten duten ekarpena behar bezala aitortuko dira. 3) Erbestea eta mugaz gaindiko lekualdatze behartua kapitulu argi eta bereizgarritzat hartzea Kolonbian Historia irakasteko Aholku Batzordeak aztertutako puntuetan, hartara, herritarren belaunaldi gazteek errealitate gordin horren berri izan dezaten eta hura prebenitzearen eta ez errepikatzearen alde egin dezaten.

Kolonbiako Estatuak erbestea eta biktimak aitortu behar ditu giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean ezarritako gida eta protokoloen arabera, eta, batez ere, biktimekin kontsultatu behar da haien metodologiari, oinarrizko alderdiei eta funtsari dagokienez. Alderdi horietan, erbesteratuen eta errefuxiatuen erregistroa egiten duten erakundeen arteko artikulazioa bultzatu behar da.

Erantzukizunen aitortza beste eragile batzuen aldetik

Batzordeak ohartarazi du gerran parte hartzen duten eragile armatu guztiek erantzukizun zuzena dutela herrialdeetako irteera behartuak eragin zituzten kausa eta gertaeretan: gerrillari-taldeek, talde paramilitarrek, Indar Militarrek eta Poliziak. Era berean, erantzukizuna egotzi zitzaizkien Estatuak eragile eta erakunde batzuei, bai eta hirugarren zibilei ere, pertsona biktimei erbestea eragin zieten ekintzak egiteagatik edo ez egiteagatik.

Ugariak dira gertaerak salatzean –zehaztasun-mailaren batekin– edo erantzukizunak esleitzean mehatxu berriak jaso zituzten edo itzultzean birbiktimizatu ziren biktimen ahotsak. Bestalde, justiziaren sektoreak kasu bakoitzaren ikerketan duen eraginkortasun, gardentasun eta azkartasunaren mugek, oro har, zigorgabetasuna ekarri dute.

Erbestealdiaren arrazoieta norbanakoen eta taldeen erantzukizunak aitortzeko eskaera Egiaren Batzordeak agintaldian entzundako biktimen ahots guztietan dago. Horregatik guztiagatik, gerrillek eta erbesteko talde paramilitarrek erantzukizunen eta biktimei atzerrian eragindako kalteen aitortza-prozesua berria da, eta prozesu duintzaile gisa eratzten da, herrialdearen egia historikoa eraikitzen lagunduko duena, Kolonbia Kolonbiatik kanpo barne hartuko duena.

3 2017ko 588 Dekretuaren 13. artikuluko 8. zenbakiko III. tituluak Kolonbiako Egiaren Batzordearen ondorio eta gomendioak kontuan hartzea behartzen du Memoria Historikoaren Zentro Nazionalako Memoria Historikoaren Museoa.

Kanpoko biktimen, erbesteratuen eta errefuxiatuen erregistro historikoa

Gaur egun, UARIV-eko datu-sistemetan, Kanpo Harremanetarako Ministerioan *Colombia Nos Une* programarekin eta ACNUR-en erregistroetan zatikatuta dago erbestearen gutxi gorabeherako biktimakopurua. Horren aurrean, Egiaren Batzordeak, hasierako ekintza gisa, Estatuko erakundeen eta gizarte zibilaren artean datuak artikulatzeko mahai bat sortzea gomendatzen du, ACNUR gonbidatu gisa parte-hartzaile dela, eta azpierreregistroa minimizatu eta erbesteko fenomenoaren ezaugarrietara hurbilduko dituzten tresna berriak sortzeko joerak definituko dituena.

Funtsezkoa da erregistro-tresna berriak sortzea, erbestearen dimentsiora modu errealagoan hurbiltzeko, eta, hartara, beharrezkoak diren erabaki instituzionalak hartzeko, egia-, justizia- eta erreparazio-eskubideak bermatzeko. Egiaren Batzordeak, datu-baseak bildu eta aztertzeko ahaleginean, indarkeriagatik herrialdetik ihes egin duten pertsona guztienganako lehen hurbilketa bat aurkeztu du txostenean. Ariketa horrek erakundeen arteko sistematizazio- eta erregistro-prozesua baten hasiera izan behar du.

Ildo horretatik, Batzordeak ohartarazi du datu bereziak eraiki behar direla, besteak beste, genero-identitatearen, sexu-orientazioaren, kideetasun etnikoaren, arrazaren, gaitasun funtzional desberdinen, bizi-zikloaren arabera. Hala, populazio-talde horiei, Kolonbian aurre egin dieten indarkeriei eta harrerako eta itzulerako herrialdeetan dituzten beharrei buruzko azterketak egiteko.

Bereziki, Batzordeak gomendatzen du –erbestea eta mugaz gaindiko lekualdatzea giza eskubideen urraketa gisa onartu ondoren– Biktimen Erregistro Bakarrean aldi gehigarri baterako erregistratu ez diren biktimen aldeko epeak luzatzea, bai eta erregistro hori gertaera berriak inskribatzeko egokitzea ere. Egokitzapen horrek esan nahi du Biktimentzako Unitateak nazioarteko hedapen-bide bat sustatu behar duela erregistrorako, eta beste leku batzuk hartu behar dituela, harrera-herrialdeetako enbaxada eta kontsulatuez gain. Horretarako, kontuan hartu behar dira herrialde horietan errefuxiatuekin eta nazioarteko babes-beharrak dituztenekin lan egiten duten erakundeen sare zabala, giza eskubideen erakundeak eta biktimen plataformak.

Bestalde, ACNUR-ek nazioarteko babesaren behar duten pertsonen azterketaren aurrean terminoak eta irizpideak bateratzea gomendatzen da. Errefuxiatuei, asilo-eskatzaileei eta «intereseko» beste batzuei dagozkien kategoriek antzeko ezaugarriak dituzte Kolonbian, eta beharizan berak dituzte nazioarteko babesaren arloan. Kasu horretan, ikuspegi bateratuak adierazleen eta inkesten inguruko eztabaida teknikoak erraztuko lituzke, erakundearen aldizkako txosten estatistikoak informazio kualitatiboarekin osatzeko. Horrela, herrialde hartzaileek erbesteratuen eta babes-beharrak dituztenen irteera-testuinguruari buruzko informazio eguneratua izango dute, baita ACNUR-ek gaur egun ematen duen informazioa ere.

Azkenik, Egiaren Batzordeak erbestearen alderdi guztien jarraipena egiteko deia egin die gizarte zibileko erakundeei, esparru akademikoari eta sektore publiko eta pribatuari. Informazio horrek erbesteko ikuspegi nazionala eta nazioartekoa ematen du, eta ACNUR-ek harrera-herrialdeetako errefuxiatu kolonbiarrei buruz aurkezten dituen datuen analisia indartu dezake.

Gatazka armatuak erbesterako eta babeserako arrazoi izaten jarraitzen duela onartzea

2016ko Bake Akordioa urrats erabakigarria izan zen herrialdearen historian, eta horrek aurrerapen handiak ekarri ditu bakea eraikitzeko bidean. Hala ere, gerrako beste eragile batzuen jarraipenak (ELN, FARC-EPko disidentziak eta beste gerrilla zahar batzuetako gune gotorrak –hala nola EPL–, mobilizazio osteko talde armatuak eta narkotrafikoa— eta eragile horien lurralde-kontrolaren ondoriozko eskualdeetako indarkeria iraunkorrak, edo Estatuaren presentzia militarrek gatazka, konpondu beharrean, areagotzen duenean, horiek guztiek arriskuak dakartzate eragindako populazioentzat. Gizarte-arloko eta komunitateko liderren (nekazariak, indigenak, afro-ondorengoak, ingurumenaren aldeak, besteak beste), giza eskubideen defendatzaileen eta, 2016 urtearen ondoren, bakea sinatu duten FARC-EPko borrokalari ohien hilketek agerian uzten dute indarkeria-baldintza onartezinak daudela, Batzordearen iritziz.

Testuinguru horretan, Batzordeak jakin du herrialde ugariak erbesteratuak babesteko eskariari uko egiten diotela, argudio hau emanda: Kolonbian bake-prozesu bat dago, eta herrialdeak prozesu hori ezartzen eta herritarrentzako segurtasun-baldintza egokiak sustatzen lan egiten du, eta, ondorioz, babes hori ez da beharrezkoa. Eskaera horiek ebaluazio arduratsua behar dutela alde batera utzita, Batzordeak adierazi du kezkatuta dagoela nazioarteko babes-eskaerei eta asilo-eskubideari buruzko erabakiak hartzen dituztenentzat egoera hori ikusezina izan daitekeelako. Horrek esan nahi du biktima kolonbiarren eskubideak ez direla kontuan hartuko beren benetako segurtasun-egoeraren aurkako arrazoi politikoengatik. Batzordeak gomendatzen du Kolonbiako Estatuak, Gobernuaren eta haren kontrol-erakunde bidez (Defentsa Erakundea, Prokuradoretza), testuinguru-informazio ematea eskaera horiek egiten zaizkien Estatuari, eskaera horiek modu errealistan eta nazioarteko itunen arabera ebaluatu ahal izateko. Estatuak kontuan hartu beharko lukete nazioarteko erakundearen informazioa (Egiaztatze Misioa, Giza Eskubideen Goi Mandataritzaren Bulegoa, besteak beste) eta bereziki Bake Prozesuaren Akonpainamenduko Misioarena (Mapp-OEA, gaztelaniaz).

Bake-prozesuak indarkeria-egoera hobetu badu ere, lurralde multzo jakin batean, FARC-EPko buruzagiak eta kide ohiak jazarpenaren, atentatuaren, hilketen eta mehatxuen biktima izaten jarraitzen dute. Paradoxa badirudi ere, Kolonbian, indarkeria utzi delako pertzepzioak areagotu egiten du lidergoaren edo giza eskubideen defentsa egitearen ondorioz, mehatxuengatik, atentatuengatik eta jazarpenarengatik herrialdea utzi behar izan duten pertsonen babesgabetasuneko eta defentsa gabeziako egoera. Bake-prozesuarekin bateraezina izan beharrean, babes-eskaeren ebaluazio arduratsua prozesuari egiten zaion ekarpenaren parte da, pertsonen bizitza babesten baitu.

Batzordeak, halaber, Kolonbiako Estatuari gomendatzen dio Nazio Batuen Sistemaren eta misio diplomatikoen aurrean txostenak gardenak izan daitezela, errefuxiatu-izaera onartzeko eskaerei buruzko erabakiak hartzeko informazio egiazkoa eta kalitatezkoa izan dezaten. Funtsezkoa da Kolonbia nazioarteko betebeharrei atxikitzea, giza eskubideen egoeraren berri emateko eta barne ordenamendu juridikoa sinatutako nazioarteko hitzarmenetara egokitzeko.

Muga-eremuetan giza eskubideak urratuz gero –mugaz gaindiko lekualdatzeak eragin dituzte eta eragiten jarraitzen dute–, arreta berezia jarri behar da, laguntza eta erreparazioa emateko neurrietan. Mugaren dinamiken berezitasuna dela eta (eragile armatuak eta legez kanpoko era guztietako ekonomiak), Kolonbiako gatazka armatuaren biktima asko beste indarkeria-ekintza batzuen xede dira migrazio-igarotzeetan edo inguruko herrialdeetako lurraldeetan. Egiaren Batzordeak UARIV-i

gomendatu dio, erreparazio integraleko neurriei dagokienez, mugaz gaindiko lekualdatzea aitortzeak kontuan har ditzala mugetan hain ohikoak diren igarotze pendular horietan gertatzen diren kalteak eta inpaktuak, banakakoak nahiz kolektiboak.

Estatuaren erantzukizuna eta biktimak nazioartean onartzeko ekintzak

Estatuak bere erantzukizun etiko eta politikoa onartu behar du, herritarren babesik ezari dagokionez; erantzukizun horren ondorioz, ehunka mila herritar atera ziren herrialdetik. Biktimei Laguntza eta Erreparazio Integrala Emateko Sistema Nazionalan parte hartzen duten erakundeek, alde batetik, erbestea aitortzeko ekintza nazionalak eta nazioartekoak sustatu behar dituzte, biktimen erakundeek eta gizarte zibilak parte hartuta, eta, bestetik, herrialde askotan kolonbiarren bizitza babesten lagundu duten nazioko eta nazioarteko erakundeek ere parte hartu behar dute, legez babestuz, laguntza humanitaria eta laguntza psikosoziala emanez, besteak beste, erbesteko mekanismo espezifikoak ezartzeko.

Puntualki, Kolonbiako Estatuak aitortu egin behar du bere erantzukizun historiko, etiko eta politikoa, gerra-ekintzak eta legez kanpoko jarduerak egin zituela giza eskubideen aldeleen eta erbesteko biktimen aurka, zenbait herrialdetako erakundeak barne, Europa izeneko operazioan gertatu zen bezala (legez kanpoko interzeptazioak, jazarpena eta xaxatzeak, Segurtasuneko Administrazio Sailak -DAS, gaztelaniaz- eginak), kanpoko kolektibo eta gizabanakoei. Aitortza horrek Kolonbian giza eskubideen aldeleek hainbat herrialdetan egindako lana desestigmatizatzen lagunduko luke. Era berean, erantzukizun publiko mota bera hartu behar du bere gain, Estatuko erakundeek irakasleak, ikasleak, gizarte-liderrak, sindikalistak, nekazariak eta gainerako profilak jazartzeko eta estigmatizatzeke egindako ekintzengatik, gizartean, politikan eta giza eskubideen defentsan egiten duten lana aintzat hartuta.

Egiaren Batzordeak Estatuari gomendatzen die berrazter ditzatela giza eskubideekiko errespetuarekin bat ez datozen praktikak, zenbait hamarkadatan ikerketa-prozesurik izan gabe muga bat «terrorismoa» kontzeptuaren pean susmoak direla-eta gurutzatu duten pertsona kolonbiarren kasuan, hala nola Batzordeak dokumentatutako Unión Patrióticako kideen kasuan. Era berean, Batzordeak Kolonbiako Estuari gomendatu dio Kolonbian giza eskubideen egoeraren gainean lan egin duten edo, aldi berean, biktimak izan diren eta susmopean tratatu diren kanpoko pertsonen aurkako xedapen praktikoak, zentzu berean, berrikus eta indargabetu ditzala, modu funsgabeen seinalatuta edo hainbat hamarkadatan irekita egon diren ikerketa-prozesuen pean egonak, beren eskubideen inolako aitortzarik gabe.

Azkenik, Estatuak aitortza publikoa egin behar du erbestealdiak eragin zituzten muntaia judizialen, estigmatizazioen eta salaketa faltsuen kasuetan. Ondorioz, beharrezko neurriak hartu behar ditu terrorismoan, hilketan, matxinadan eta delitua egiteko itunean faltsuki inplikaturako eta, besteak beste, prozesuak amaitu ondoren –frogarik ez izateagatik edo terminoak iraungitzeagatik–, errugabetzat jo zituzten pertsonen izen ona berreskuratzeko. Hori ezinbesteko baldintza da itzuleretarako eta galdutako lidergo sozial eta politikoa berreskuratzeko.

Nazioarteko babeserako eskubidea bermatzeko lankidetz

Nazioarteko babeserako premia humanitarioa da, eta Estatuak eta nazioarteko erakundeek onartu behar dute. Batzordeak hainbat herrialdeetako gobernuak eta ACNUR-ek barne-gatazka armatuaren ondorioz herrialdeetik ateratu behar izan zuten bizitza babesteko izan duten zeregina aitortzen du. Hala ere, gobernu batzuek kategoria politiko estigmatizatzaile gisa ikusi dute babes kontzeptua, erbesteratutako kolonbiarrak «gerrillariekin», «gaizkileekin», «narkotrafikatzaileekin» eta «terroristekin» elkartzean, besteak beste, eta horrek modu negatiboan baldintzatu ditu Estatuak nazioarteko babeserako behar duten kolonbiarren aurrean dituzten jarrerak.

Kolonbiako Estatuak, dagozkion erakunde bidez, eskualdeko edo alde biko akordioak sustatu behar ditu atzerrian dauden biktimei laguntzeko, eta, horietan, eskubideak bermatzea, itzultzea eta harrera-herrialdeetan berriz integratzeko eta itzulera-prozesuetarako laguntza sustatuko da. Mugako eremuetan, mekanismo horiek lankidetzaren binazionalaren ikuspegia izan behar dute, batez ere eskualdeen garapenean oinarritua, migrazio mugimendu pendularrek berezko dituzten kultura- eta komunitate-berezitasunak kontuan hartuta.

Migrazio-gaietan eskumenak dituzten Kolonbiako kanzelaritzak, enbaxadak, kontsulatuak eta gainerako erakundeek informazio-kanal iragarriak eta espezifikoak sustatu behar dituzte, biktimei legera eta Egiaren, Justiziaren, Erreparazioaren eta Errepublikaren Ezaren Sistema Integralera iristeko mekanismoak eta erbesteratu joan behar izan duten pertsonentzako Estatuak gainerako tresnei buruz. Era berean, informazio-zerbitzua eskaintzen duten langileek erbesteratu biktimei laguntzeko gaitasuna izan behar dute, eta estatu hartzaileetan edo asiloan babeserako onartzeko prozesuetan konfidentzialtasun-, konfiantza- eta zaintza psikosozialeko inguruneak eskaintzen saiatu. Azkenik, harrera-faseko arretari dagokionez, herrialde hartzaileei gomendatzen zaie lankidetzarako mekanismoak ezartzea giza eskubideen erakundeekin edo behar dutako etorkinekin lan egiteko, biktimei laguntzeko beharrezko independentzia izan dezaten.

Era berean, Kolonbiako biztanleak jasotzen dituzten herrialde nagusiekin akordioak sustatzea gomendatzen da, besteak beste, unibertsitateko tituluak, titulu teknikoak eta pentsioetarako ekarpenak onartuko direla bermatzeko.

Erbesteratutako herritarrentzako erreparazioa

Batzordeak 2011ko 1448 Legean biktimei erreparazioari buruzko xedapenak berrikustea eta berregituratzea gomendatzen du. Erreparazio horrek kalte eta inpaktuen dimentsioei erreparatu behar die, hala nola, norbanakoen eta taldeen nortasunarekin lotutako eraginak; gizarte-, politika- eta komunitate-lidergoak haustea; banakako eta familiako inpaktu psikosozialak, eta itzulerako borondatezko prozesuetarako ibilbideak diseinatzeko laguntzea. Ekitaldi honetan, Batzordeak eskatu du itzuleraren aurrean dauden larrikeriak berrikusteko eta errefuxiatuentzako, errefuxiatu-izaera eskatzen dutenentzako eta kanpoko biktimei laguntzeko programa espezifikoak diseinatzeko. Programa honek eskubideak eskuratzeko neurri bereziak hartu behar ditu, erbesteratu bizipenen beharren, kalteen eta galeren arabera.

Kanpoko biktimei erreparazioak integrala, berezia eta eraldatzailea izan behar du, eta Kolonbiako biktimei laguntza kontuan hartzen diren erreparazio-eragileak izan behar ditu: kalte-ordaina, itzulketa,

gogobetetzea, errehabilitazioa eta errepikapenik ezerako bermeak, bai eta adinaren, generoaren, sexu-aniztasunaren, etniaren, gaitasun funtzional ezberdinen eta adinaren ikuspegi bereizgarriak ere. Kanpoan geratzea erabakitzen duten biktimentzat zein bueltatzea erabakitzen dutentzat aplikatu behar da hori. Horretarako, Estatuak beharrezko finantziario-iturriak bermatu beharko ditu, erreparazio-neurriak eragindako kaltearekiko eta biktimen bizi-proiektua berreraikitzearekiko proportzionalak izan daitezen. Integraltasunak barne hartuko ditu, halaber, administrazio-erreparazioen eta epaitegien arteko artikulazio- eta koherentzia-berme espezifikoak, Bakerako Jurisdikzio Berezian (JEP, gaztelaniaz) dekretatu beharreko erreparazio-zehapenetakoak barne. Gobernu nazionalak programa berezi bat diseinatu eta ezarri beharko du, komunitate etnikoentzako erreparazio kolektiborako ikuspegi bereizgarriarekin, mugako eta kanpoko eremuetan, kolektibitateetako kideek eta erreparazio kolektiboan parte har dezaketen biktima potentzialek horren formulazioan, inplementazioan eta jarraipenean parte hartuta.

Alde horretatik, Gobernu nazionalak eta Kanpo Harremanetako Ministerioak beharrezko ekintzak garatu beharko dituzte hitzarmen binazionalak eta aldeaniztunak ezartzeko, biktimen legea aitortzeko –erbestea giza eskubideen urraketa gisa onartu ondoren, eta arauaren aplikagarritasuna lurraldez kanpo zabaldu ondoren–. Akordio horien bidez, baimena eta lankidetzat lortu nahi dira, Kolonbiako Gobernuak lege honetako neurriak biktimak dauden tokietan ezarri ahal izan ditzan, herrialdetik kanpo bizi direnei dagokienez. Laguntza humanitarioko neurriak, arreta, laguntza, egia, justizia eta erreparazioa, eta errepikapenik ezerako bermeak kanpoko biktimei aplikatuko zaizkie, eta ez dute inola ere murrizketarik, ordezkapenik edo etendurarik eragingo biktimen nazioarteko babesari dagokionez.

Era berean, biktimek atzerrian Biktimen Mahai Nazionalean parte hartuko dutela bermatu behar da, biktimei buruzko legean ezarritako arreta-, laguntza- eta erreparazio-arloko neurriak eraginkortasunez hartu ahal izan ditzaten.

Horrez gain, eta Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarraren (CIDH, gaztelaniaz) erabakiak betetzeko praktika egokien gidari jarraituz, kalte-ordainak ordaintzeko mekanismo bereziak sortzea gomendatzen da⁴. Kolonbiak horri buruzko arau bat badu ere⁵, horrek ez du mekanismo berezirik aurreikusten erbestearen administrazio-erreparaziorako, eta hori lehentasunez zuzendu behar da. Funtsezkoa da CIDH-ren gomendio hori betetzea, kontuan hartuta herrialdetik kanpo dauden biktimen ehunekoa handia dela eta irteeretan hazkundera izan dela, barne-gatazka armatuak bere horretan jarraitzen duelako.

Kanpoko biktimentzako partaidetza instituzionaleko guneak egokitu eta haietan parte hartzea

Biktimek kanpoan, erbesteratuta eta errefuxiatuta, parte hartzeko eremu instituzionalak mugatuak izan dira Biktimentzako Partaidetza Efektiboko Protokoloan sartu zirenetik. Erbestea eta mugaz gaindiko lekualdatzea ekintza biktimizatzailetzat hartzeak, bai eta erbesteratu eta errefuxiatuen lurraldez kanpoko izaera onartzeak ere egungo instantzia, espazio eta mekanismoak birformulatzea dakar. Alde horretatik,

4 OEA, «La CIDH publica la Guía».

5 Kolonbiako Kongresua, 1996ko 288 Legea.

Egiaren Batzordeak UARIV-i gomendatzen dio parte hartzeko protokolo espezifikoa diseinatzea, Egiaren, Justiziaren eta Erreparazioaren Sistemako entitateetan biktimei buruzko programa, proiektu eta ekintzetan eskubidea benetan erabiliko dela bermatzeko, bai eta horren ezarpenean biktimei erreferentzia egingo dieten programa, proiektu eta ekintzetan ere parte hartzea ere.

Protokolo horiek diseinatzeko, erbesteratuek, erakunde laguntzaileek eta Kanpo Harremanetarako Ministerioak eta erakunde eskudunek parte hartu behar dute. Gobernu nazionalak Kanpo Harremanetarako Ministerioari jarraibideak eman beharko dizkio, harrera-herrialdeetako enbaxaden eta kontsulatuaren bidez, errefuxiatuei, erbesteratuei eta nazioarteko babesa duten beste pertsona batzuei tresna horiek eraikitzen parte hartzeko moduen berri emateko.

Egiaren, Justiziaren, Erreparazioaren eta Errepikapen Ezaren Sistema Integralari dagokionez (SIVJRNR, gaztelaniaz), bide argi goa eta artikulatu goa sortzea gomendatzen da, kanpoko biktimek, erbesteratuek eta errefuxiatuek parte har dezaten, Desagertutzat jotzen diren Pertsonak Bilatzeko (UBPD, gaztelaniaz) eta JEP artean. Gaur egun, sarbide zatikatuak daude, eta kontsulatuak eta enbaxadak ez dute informazio eguneraturik harrera-herrialdeetan pertsonen parte-hartzea bermatzeko.

Nazioarteko ikuskaritza- eta interlokuzio-guneak

Biktimekin entzuteko ariketetan eta migrazio behartuan eta nazioarteko babesean eskumena duten erakundeetako funtzionarioekin hitz egiteko guneetan, eztabaidak eta eremu grisak daude errefuxiatuen nazioarteko zuzenbidearen aplikagarritasunari, migrazio-legeei eta Kolonbiako kasurako babes-sistema nazionalari buruz. Gai horiei ekiteko, Batzordeak Gobernu nazionalari gomendatzen dio *Bakeari eta erbesteari buruzko nazioarteko konferentzia* sustatzeko, gizarte zibilaren eta kanpoko biktimen ordezkarien parte-hartzearekin. Gune horren emaitza izan behar du tresnen eta herrialdeetako lege-araudien harmonizaziorako esparru-dokumentu batek, bai eta erbestera kolonbiarren eskubide eta ondasunak eskuratzeko tratamendu integralerako proposamenek ere.

Konferentziaren ondorioz sortzen diren akordioak beteko direla bermatzeko, nazioarteko akonpainamendu- eta ikuskaritza-gune bat sortu beharko da, Kolonbiako Estatuak eta parte hartzen duten akordio binazionalak dituzten herrialdeek Kolonbiako erbestera nazioartean babesteko beharrezkoak diren xedapenak sartu eta eztabaidak sustatuko dituztela ziurtatzeko.

Itzulera duinerako eta errepikapenik ez izateko baldintzak

Bake Akordioan, biktimei buruzko bosgarren puntuan, gatazka armatuan giza eskubideak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa urratzearen ondorioz herrialdea utzi zuten biktimen garrantzia onartzen da, eta horrek esan nahi du laguntza eta akonpainamendua duten itzulera-planak abian jarri direla. Hala ere, biktimen unibertsoan erbesteratuei eta errefuxiatuei izen ona aitortu arren, oztopoak daude itzulerarako lege-esparrua artikulatzeko, ez baitira erabili hitzarmenean aipatzen diren neurriak eta programak eraginkortasunez aplikatzeko behar diren tresnak. Alde horretatik, Egiaren Batzordeak Kanpo Harremanetarako Ministerioari gomendatzen dio, *Colombia Nos Une* programaren bidez, eta UARIV-i, Bake Akordioaren xedapenak ezartzeko aukera emango duten artikulazio-espazioak sortzeko, itzulera-

eta aberriratzeko-prozesuei dagokienez, eta horiek aurreratu egin beharko dira, borondatezkotasunaren, segurtasunaren eta duintasunaren printzipioak errespetatuz.

Artikulazio-espazioen aurrean, itzultze-politika integrala sortzea bultzatu behar da, 2012ko 1565 Legearen xedapenak, Biktimen Legea eta Bake Akordioan itzulera-planari buruz esandakoak bilduko dituena. Politika horrek ahalegina egin behar du biktimentzat prestatutako plan, programa eta proiektuetan erbesteko bizipenen kalteak eta eraginak kontuan har daitezela, bai eta itzulera-prozesuetan sortzen diren ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko neurriak ere. Puntualki, itzulera bermatuko duten neurriak sartu behar dira lurralde-ikuspegia duten garapen-planetan. Tresna horiek, gutxienez, honako hauek jaso behar dituzte: 1) etxebizitza eskuratzeko programak; 2) pentsio-sistema orokorrerako kanpoan kotizatutako urteak baliozkotzeko aholkularitza; 3) erbesteko biktimentzako oinarrizko, erdiko eta goimailako hezkuntza lortzeko programak, bigarren eta hirugarren belaunaldiak, eta azken horiek atzerrian tituluak baliozkotzeko prozesua arintzeko neurriak barne hartzea; eta 4) osasun-plan integralak, helduen arreta espezializatuarekin psikologian eta psikiatريان.

Horrenbestez, dei egiten zaie Biktimei Laguntza eta Erreparazio Integrala emateko Sistema Nazionalako erakundeei eta Kolonbiako Pentsio Administrazioarekiko (Colpensiones, gaztelaniaz), neurri horiek har ditzaten, eta atzerrian, erbesteratuta eta errefuxiatuta daudenei eskubideak benetan izango dituztela bermatzeko tresnak diseina ditzaten. Bereziki hartu behar da kontuan ikuspegi diferentzialak eta horiek erbesterekiko eta mugaz gaindiko lekualdatzearekiko dituzten eragin diferentzialak transbertsalizatzea. Egiaren Batzordeak bereziki bigarren belaunaldiak hartzen ditu aintzat, eta atzerrian jaiotako senideen migrazio-erregulaziorako ibilbide zehatzak sortzea proposatzen du, bai eta haurrei eta nerabeei laguntzea ere, gizarteratze eta identitate-berreraikuntza eraginkorra gauzatzeko.

Justiziarako sarbidea biktimentzat kanpoan

Bai Gobernu nazionalak, bai Estatuko kontrol-erakundeek mekanismo eraginkorrak sustatu behar dituzte, beste herrialde batzuetan dauden biktimek justiziara jo ahal izan dezaten eta herrialde hartan zeuden prozesu judizialen edo lur-itzulketen jarraipena egin dezaten. Horrek esan nahi du ibilbide espezifikoak zehaztu behar direla erakundeetan, biktimen eskubideak bermatu eta berrikusiko dituztenak eta justizia administratuko dutenak, hala eskatzen duten erbesteratuentzat. Gainera, beren biziak eragile armatuen jazarpenetik eta Estatuaren babesgabeziatik defendatzeko herrialdeetik ateratu behar izan zutelako, ez-subsistente deklaratu ziren justiziaren sektoreko funtzionarioen kasuan, kasuan kasuko agintariek erantzun egin behar diete biktima horiek izen ona berrezartzeko eta beren eskubideak eskatzeko egiten zituzten eskaerei. Alde horretatik, Fiskaltzak eta Estatuko gainerako organoek nazioarteko lankidetzak-neurriak hartu behar dituzte kanpoko biktimek Egiaren, Justiziaren, Erreparazioaren eta Errepikapen Ezaren Sistema Integralean parte har dezaten bermatzeko, sustatzeko eta gauzatzeko.

Iheslariak erbestean SIVJRN-aren mekanismoetan parte hartzeari dagokionez, Batzordeak gomendatzen du erbestea eta babesa –bortxaketaren sistematikotasuna, iraunkortasuna eta dimentsioa kontuan hartuta– JEP-en eskumen-kasuen zati izatea. Horretarako (eta JEP-en eskumenekoak diren gainerako kasuak garatzeko), espazio birtualak gaitu eta ofizial bihurtu behar dira, kanpotik entzunaldi judizialak berme prozesalekin egiteko. Gainera, biktimen prestakuntza psikosozial eta juridikorako protokolo bat hartzea gomendatzen da, audientzia horietan parte hartzeko. Halaber, Batzordeak eskatu du

Estatuak onar dezala desagertutako pertsonen bilaketa bere erakundeen eskubide eta lehentasun gisa. Horren ondorioz, beste herrialde batzuetan dauden biktimek UBPD-ren lanerako sarbidea izan dezaten mekanismoak antolatu behar dira, eta ekintza horien jarraipena egiteko mekanismoak sustatu behar dira, unitatearen funtzionamenduan zehar bilaketa eraginkorra egiteko bitartekoak emanaz. Horretarako, protokolo bat eraikitzea gomendatzen da, erbesteratutako biktimek ante mortem informazioa eman dezaten gatazka armatuaren erdian desagertutzat jotzen diren pertsoneri buruz. Horrez gain, kanpoan hildakoen gorpuzkiak itzultzeko eskubidea bermatu behar zaie hala nahi duten familiei.



web.comisiondelaverdad.co



Comisión para el Esclarecimiento de la Verdad,
El Conocimiento y la No Repetición.